VOCES DEFENSORAS

PALESTINA

eta bertako giza eskubideen emakume defendatzaileak



Apartheidaren, okupazioaren eta patriarkatuaren aurkako borroka

Mundubat

pbi
abriendo espacios para la paz



Dheisheh errefuxiatuen kanpamendua.

Aurkibidea

I. Kolonialismoa, apartheida eta okupazioa Palestinan. Testuinguruarekiko begirada 5
Anexioa, zatiketa eta memorizidioa 8

II. Giza eskubideen emakume defendatzaileak Palestinan 13
Emakumeen mobilizazio kolektiboa Palestinan. Hurbilketa historikoa 13
Politika kolonialek giza eskubideen emakume defendatzaile palestinarren ekintzetan duten eragina 16
Giza eskubideen defentsa Palestinan. Eginkizun arriskutsua 16
Emakumeen aurkako indarkeria eta diskriminazioa Palestinan. Kolonialismoaren eta patriarkatuaren artean 18
Giza eskubideen emakume defendatzaileen kriminalizazioa eta etengabeko jazarpena Palestinan. Espetxeratze eta zigor-neurriak 20

III. UPWC: Palestinako emakumeen borroka eta erresistentzia. «Behetik» egindako hurbilketa 23
UPWC subjektu politiko gisa. Oinarrietatik ordezkarietara 23
UPWC erakundearen jarduketa-eremuak giza eskubideen defentsari dagokionez 25
Presentzia komunitarioaren aldeko apustua 25
Identitatearen, lurraldearen eta memoriaren alde borrokatzeko estrategiak 25
Erronkak eta mehatxuak giza eskubideen defentsan 27

IV. Palestinan giza eskubideak defendatzeko obligazioa duten titularrei egindako eskakizunak 29

Bibliografia 31
Liburu eta artikulu zientifikoak 31
Gizarte zibileko erakundeen dokumentazioa 32
NBEren agiriak 32
Prentsa eta online baliabideak 34
Beste batzuk 34

Kredituak:

IKERKETA ETA TESTUAK: LUCÍA LÓPEZ ARIAS, HANADY MUHIAR ETA DIEGO ORTIZ VALLEJO

ARGAZKIAK: RIMA QUMBUZ ETA NATALIA QUIROGA GARCÍA

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: CABINET KOMUNIKAZIOA

Mundubat

pbi abriendo espacios para la paz

Diruz laguntzen dute:

MADRID

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO



Jalazoun (Ramallah) errefuxiatuen kanpamendua.

I. Kolonialismoa, apartheida eta okupazioa Palestinan. Testuinguruarekiko begirada

Palestinan giza eskubideak defendatzeko eta babesteko lan egin duten emakumeak ezagutzeko ezinbestekoa da testuinguruarekiko hurbilketa egitea eta haien bizitzak zein errealitatetan garatzen diren ulertzea. Ikerketa honetan aurkeztuko ditugun emakumeek egunez egun egin behar diete aurre giza eskubideen urraketa larriei eta sistematikoei. Askotan, urraketa horiek gerra-krimenak eta gizatasun gutxiko krimenak izaten dira.

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren azterketa oinarritzat hartuta, askotan iritsi gara ondorio berera: Israelek apartheid-krimena gauzatzen du herri palestinarraren aurka[1]. Genozidioarekin batera, gizatasunik gabekotzat jotzen den krimenetakoa da apartheida, eta oso krimen larriak direlako izendatzen dira horrela. Izan ere, ez diete eragiten horiek sufritzen dituztenei bakarrik, gizadi osoari baizik, guztioi, eta horregatik, deuseztatu egin behar dira. Hori dela-eta, ez dute espazio-mugarik epaitzeko orduan, ezta jazartzeko denbora-mugarik ere. Edozein lekutan epaitu beharko lirateke, jurisdikzio unibertsalaren printzipioan oinarrituz, eta edozein unetan esetsi beharko lirateke, zigorraren preskribaezintasun-printzipioari jarraikiz. Dena den, Israelek erabateko zigorgabetasuna izan du 1948an estatu gisa aldarrikatu zutenetik, krimen larriak gauzatu arren eta Nazioarteko Zuzenbidean jasotako urraketak egin arren –hala jasota dago hainbat ebazpen, adierazpen, txosten eta kondenatan–.

Rima Khalaf Nazio Batuen idazkari nagusi ondokoak eta Mendebaldeko Asiarako Batzorde Ekonomiko eta Sozialaren idazkari betearazleak (ESCWA, ingelesez) argi eta garbi azaldu zuen *Prácticas israelíes sobre el pueblo palestino y la cuestión del Apartheid* (2017)[2] txostenaren aurkezpen publikoan:

> *"Nazioarteko komunitatea gutxietsiz –etengabe urratzen du nazioarteko zuzenbidea–, Israelek herri palestinar osoarekiko apartheid-erregimena ezartzea eta mantentzea lortu du azken hamarkadetan".*

Txosten horren arabera, Israelek bi modutara inposatzen eta mantentzen du apartheid-erregimena: batetik, "herri palestinarraren zatiketa politikoaren eta geografikoaren bitartez, horrek palestinarren erresistentzia-gaitasuna ahultzen duelako eta bizi duten errealitatea aldatzea ia ezinezkoa delako"; eta, bestetik, "palestinar guztiekiko zapalkuntza-, menperatze- eta diskriminazio-sistema ezarriz, arraza bat bestearen gainetik gailentzea bermatzen duten legeak, politikak eta praktikak artikulatuz, eta erregimena bere horretan mantenduz".

Horren ostean egin zen eta Arrazagatiko Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeari helarazi zitzaion (ingelesezko siglak: CERD) txosten batean[3], giza eskubideak babesteko eta defendatzeko nazioarteko zortzi erakunde erreferentek –horietatik sei Palestinako Giza Eskubideen aldeko Erakundeen Kontseilukoak– berriz salatu zuten Israelek herri palestinar osoaren gaineko arrazagatiko zapalkuntza- eta mendekotasun-sistema instituzionalizatua sortzea eta mantentzea lortu duela, oso sustraituta dagoen zigorgabetasun-sistemari esker eta nazioarteko komunitateak Israelen ustezko krimenak zalantzan jartzeko duen gaitasunik ezagatik. Hori dela-eta, Israelek arrazan oinarritutako mota guztietako

1 Ilan Pappé: *La idea de Israel. Una historia de poder y conocimiento* (Madril, Akal, 2014). Virginia Tilley: *Beyond Occupation: Apartheid, Colonialism and International Law in the Occupied Palestinian Territories* (London, Pluto Press, 2012). John Collins: "Más allá del 'conflicto': Palestina y las estructuras profundas de la colonización global", Política y Sociedad, 48, 1. zk. (2011), 139-154. Luciana Coconi eta David Bondia: *Apartheid contra el pueblo palestino* (Amb Palestina al Cor, 2009). Ilan Pappé: Zionism as Colonialism: A Comparative View of Diluted Colonialism, *Asia and Africa South Atlantic Quarterly*, 107, 4. zk., (2008). doi 10.1215/00382876-2008-009

2 ESCWA: *Israeli Practices towards the Palestinian. People and the Question of Apartheid Palestine and the Israeli Occupation*, Issue No. 1, E/ESCWA/ECRI/2017/1 (Beirut, NBE, 2017). Rima Khalaf Nazio Batuen idazkari nagusi ondokoak eta Nazio Batuen Mendebaldeko Asiarako Batzorde Ekonomiko eta Sozialeko (ESCWA) idazkari betearazleak bere dimisioa aurkeztu zuen, txostenaren lanketa-prozesuan, protesta gisa. Izan ere, uko egin zion Israelen eta beste herrialde batzuen presiopean jartzeari, "izaera zientifikoko eta kalitate akademiko handiko ikerketa batean oinarritutako txosten bat" alde batera utz zezaten, 2017ko martxoaren 16an, Democracy Now programan egindako elkarrizketan adierazi zuen moduan. Elkarrizketa esteka honetan kontsulta daiteke: https://bit.ly/2Pcsgit. Gaur egun, eta txostena bertan behera utzi zutenez, honako ohar hau bakarrik kontsulta daiteke ESCWAren orri ofizialean: https://bit.ly/2PddMz5.
Nolanahi ere, eta ESCWAko idazkariak adierazi bezala, txosten hori funtsezko tresna bat bihurtu da Palestinako herriaren giza eskubideak babesteko eta defendatzeko orduan. Oraindik era esteka honetan deskarga daiteke: https://bit.ly/2LoOdtF.

3 Al-Haq et al.: *Joint Parallel Report to the United Nations Committee on the Elimination of Racial Discrimination on Israel's Seventeenth to Nineteenth Periodic Reports*, 2019ko azaroaren 10a. Hemen: https://pchrgaza.org/en/?p=13197. Honako hauek dira txostenaren egileak: *Al-Haq*, BADIL, *Palestinian Center for Human Rights, Al Mezan Centre for Human Rights, Addameer, Civic Coalition for Palestinian Rights in Jerusalem, Cairo Institute for Human Rights Studies* eskualde-mailako erakundea eta *Habitat International Coalition – Housing and Land Rights Networ*k nazioarteko koalizioa.

lege, politika eta praktika diskriminatzaileak ezarri eta garatu ditu 1948tik. Herri palestinarra mendean hartzea, zatitzea eta gabetze sistematikoa lortzea da azken helburua, apartheid-krimena, alegia, Arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioaren 3. artikuluaren arabera[4]. Israelek 1979an berretsi zuen Konbentzioa eta, bertan jasotzen denez, "Estatu alderdiek" nahitaez kondenatu behar dituzte "arrazagatiko segregazioa eta apartheida", eta "euren jurisdikziopeko lurraldeetan gertatzen diren izaera horretako jarduerak prebenitu, debekatu eta ezabatzeko" konpromisoa hartu behar dute.

Salaketak egin arren, eta Zuzenbideari aurka egin arren, Israelek Estatu-Nazioaren Legea (2018)[5] onartu zuen, eta zapalkuntza-sistema hori sendotzeko asmoa berretsi du berriz ere. Horrela, bada, hirurogei lege diskriminatzaile baino gehiago ezarri ditu, arrazagatiko diskriminazioa, nagusitasuna eta jazarpena kontsakratuz, bereziki Estatu-Nazioaren Legea, Konbentzioaren xedeari eta asmoari aurka eginez, Estatu kide horretan giza eskubide guztiak eta oinarrizko askatasunak aitortu, erabili eta gauzatu ez daitezela baitu helburu. Gainera, Jerusalem "Israelgo hiriburua, bakarra eta zatiezina" dela jasotzen du, Nazioarteko Zuzenbidearen kontra, eta juduen gailentasuna ezartzen du, herri palestinarraren gainean[6]. Apartheid-krimenari dagozkion elementuak jasotzen ditu, hitzez hitz. Estatu Batuek Jerusalemeko hiria aintzatetsi dute duela gutxi (2017) eta horrek areagotu egin du krimena; izan ere, hiri horretara lekualdatu du Iparramerikako bere enbaxada (2018), eta bere kontsulatua itxi du Ekialdeko Jerusalemen (2019).

Arraza-zapalkuntzaren politika israeldar hori honako alderdi hauetan oinarritzen da: herri palestinarraren **zatiketan**, identitate palestinarraren ***memorizidioan*** eta lurraren **desjabetze** sistematikoan. Azken finean, eredu kolonialari dagokio eta, Israelen kasu zehatzean, "finkapen-kolonialismo" moduan sailkatuta dago. Estrategia horrek lurra konkistatzea, bertara kolonoak eramatea eta tokiko biztanleak esplotatzea du helburu, baina, horrez gain, tokiko biztanleak lekualdatzen eta kanporatzen ditu indarkeria erabiliz, gero herritar juduekin ordezteko[7]. Hiru elementu horiek –zatiketa, memorizidioa eta desjabetzea– guztiz sustraituta daude XIX. mendeko proiektu kolonial honen izaeran eta XXI. mende betean aktibo jarraitzen duen egitura kolonialaren jatorriko ideologian, sionismoan, alegia[8].

Sionismoak bi oinarri ditu: lurralde-espantsionismoa eta esklusibismo etniko-erlijioso judua[9]. Proiektu kolonial horrek juduen kokalekua sustatzen du, balio nazional gisa, bere kolonizazio-prozesuan, eta horrek ondoz ondoko konkistak eta lurralde-okupazioak eragin ditu: lehenik eta behin, inperio britainiarrarena, Munduko Mugimendu Sionistari egindako emakidak asetzekoa, Balfour Adierazpenaren bitartez (1917an); eta, 1948an, Israelek lurraldea konkistatu zuen 181 (1947) Ebazpeneko[10] zatiketa-proposamenean jasotako mugetatik haratago, gero 1949ko Armistizio Akordioetan aitortu zirenak. Nazioarteko Zuzenbideak galarazi arren, 1948an estatu gisa aldarrikatu zutenetik, Israelek ez du alde batera utzi bere mugak indarrez hedatzearen ideia –1949ko Armistizio Akordioetan aitortzen diren mugetatik haratago–, eta horrek inoiz izan den okupaziorik ezagunena eragin du, Zisjordaniaren (Ekialdeko Jerusalem barne) eta Gazako zerrendaren okupazioa (1967an). Horrela, Israelek Man-

4 *Arrazagatiko Diskriminazioa Ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa* (ICERD). Batzar Nagusiak 1965eko abenduaren 21eko 2106 A (XX) Ebazpenean onartu zuen, eta sinatzeko eta berresteko irekita utzi zuen.

5 Estatu Nazio Juduaren Legea. Israelgo Parlamentua (Knesset), 2018ko uztailaren 25a. Ingelesera egindako itzulpen ez-ofiziala esteka honetan kontsulta daiteke: https://bit.ly/2OgEIgA

6 Estatu Nazioaren Legeari buruzko informazio gehiago eta azterketa juridikoa nahi izanez gero, ikus *Adalah: Israel's Jewish Nation-State Law*, 2018ko abuztuaren 2a. Online: https://www.adalah.org/en/content/view/9569

7 Patrick Wolfe: Settler colonialism and the elimination of the native, *Journal of Genocide Research*, 8. bol., 4. zk. (2016): 387-409. http://dx.doi.org/10.1080/14623520601056240. Lorenzo Veracini: "The other shift: Settler Colonialism, Israel, and the occupation", *Journal of Palestine Studies*, XLII, 2. zk., (2013): 26–4.

8 Linda Tabar eta Chandni Desal: "Decolonization is a global project: From Palestine to the Americas", *Decolonization: Indigeneity, Education & Society*, 6, 1. Zk. (2017): i-xix; Rimad Abdulla: "Colonialism and Apartheid Against Fragmented Palestinians: Putting the Pieces Back Together", *State Crime Journal*, 5, 1. zk. (2016): 51-80. http://dx.doi.org/10.13169/statecrime.5.1.0051. Nur Masalha: "Settler-Colonialism, Memoricide and Indigenous Toponymic Memory: The Appropriation of Palestinian Place Names by the Israeli State", *Journal of Holy Land and Palestine Studies*. 14, 3. zk. (2015). http://dx.doi.org/10.3366/hlps.2015.0103. Jamil Hilal: "Rethinking Palestine: settler-colonialism, neoliberalism and individualism in the West Bank and Gaza Strip", *Contemporary Arab Affairs*, 8, 3. zk. (2015). http://dx.doi.org/10.1080/17550912.2015.1052226.

9 Hanady Muhiar: "La situación y la lucha de las mujeres palestinas", *Revista Pueblos*, 52. zk., 2012ko ekaina. Muhiar, Muñumer, Hanady: "Aproximación histórica y evolución del movimiento de mujeres y feminista palestino", *Genealogía feminista palestina: Historias de mujeres desde la diversidad*. UNRWA Euskadi. Bilbo, 2016ko iraila. Ikus Adalah erakunde israeldar-palestinarrak egindako Estatu-Nazioaren Legeari buruzko azterketa juridikoa: *The Legal Center for Arab MInority Rights in Israel*, Israelen ordena konstituzionala artikulatzen duena, Estatuaren identitate etniko-erlijiosoa judua bakarrik dela jasotzen duena. Adalah: *The Basic Law: Israel – The Nation-State of the Jewish People*, 2018ko azaroa. Hemen: https://bit.ly/37ff8Bt

10 Batzar Nagusiaren 181 (II) Ebazpena: "Palestina bitan zatitzeko Nazio Batuen Plana", A/RES/181 (1947ko azaroaren 29a). Hemen: https://undocs.org/es/A/RES/181(II)



Ekialdeko Jerusalemeko emakume palestinarrek egunero egiten diote aurre okupazioari.

datuko Palestina osoaren lurralde-konkista osatu du.

Ideologia sionistaren esklusibotasun etno-erlijiosoa lurraldean oinarritzen da, hau da, lurrak nahi dituzte, ez bertako biztanleak. Printzipio horren baitan, lurraldearen kolonizazio- eta konkista-prozesuan zehar Israelek indarkeria erabiliz transferitu eta kanporatu ditu konkistatutako lurraldeetako herritarrak, mota guztietako metodoak erabiliz. Horrela, bada, praktika, politika eta arau berriak ezarri eta aplikatu ditu eta, arestian esan dugun moduan, horiek giza eskubideen aurkako urraketa larriak eragin dituzte Palestinako herritarren artean.

Palestinaren kolonizazio sionistarekiko hurbilketa eginez gero (espazioari eta denborari dagokionez), ikusiko dugu kolonizazio-prozesuaren fase bakoitzerako zatiketa politiko eta geografikorako taktika desberdinak erabili direla atzerritarren lurralde-konkista oro oztopatzeko aukerak ahuldu eta neutralizatzeko. Horrela, bi garai bereiz ditzakegu: Inperio britainiarraren Palestinako gobernua (1917-1947) eta 1948an ireki zena, Israelgo Estatua aldarrikatu ondoren (1948tik gaur arte). Badilen arabera, Inperio britainiarrak 1917an Palestinako lurraldea konkistatu zuenetik –Mandatua ezarri zuenetik 1947an Palestina bitan zatitzea proposatu zen arte– 150.000 palestinar inguru kanporatu zituzten euren lurretatik, eta ez da horien inguruko ezertxo ere esaten[11]. Gero, Israelgo Estatuaren sorrera alde bakarretik aldarrikatu zutenean, eta batik bat arabiarren eta israeldarren arteko 1948ko gerran zehar, bertako herritarrak ahalik eta gehien murrizteko plana jarri zen martxan, herritar horiek estatu aldarrikatu berriaren sorrera finkatzeko orduan mehatxua izan ez zitezen.

1948ko gerraren emaitza gisa –israeldarren artean Independentziaren Gerra moduan da ezaguna, eta palestinarren artean *Nakba* (hondamena) gisa–, XX. mendeko garbiketa etnikorik handienetakoa hasi zen, Errefuxiatuen Nazioarteko Zuzenbidearen historiako porrot handienetakoa. 1.237.000 laguneko errolda batetik, gerra amaitzean 150.000 palestinar inguruk bakarrik jarraitzen zuten Israelen eskuetan geratu zen Palestinaren barruan[12]. Palestinako herritar autoktonoen hiru laurdenek baino gehiagok erbesteratu egin behar izan zuten. Kanporatutako herritar horietatik ez dakigu zehatz-mehatz zenbat lagun hil edo desagertu ziren, laztura hartatik ihesi. Dena den, badakigu 726.000 inguru UNRWAn erregistratu zirela, Palestinako errefuxiatu gisa[13]. Gaur egun palestinarrek osatzen dute munduko errefuxiatu guztien artetik gehiengoa (8,26 milioi inguru, horietatik 5,5 erregistratuta)[14], eta huraxe da oraindik ebazteko dagoen historiako aterpe-kausarik zaharrena, arrazoi hertsiki politikoak direla eta. Horrela, bada, Palestinako herritar errefuxiatuak euren etxeetara itzultzeko eskubidea urratzen ari da, Nazio Batuen 194 Ebazpenean ageri den eskubidea[15]. Izan ere, oraindik ere bete gabe jarraitzen du, 1948tik urtez urte berretsi arren.

11 "1922tik 1947ra, Palestinako biztanle guztietatik ia hamarren bat kanporatu, desnazionalizatu edo euren etxeetatik kanporatu zituzten". "The Ongoing Nakba", *Survey of Palestinian Refugees and Internally Displaced Persons 2016-2018*, IX. bol. BADIL, Resource Center for Palestinian Residency and Refugee Rights http://www.badil.org/en

12 Herri palestinarraren eskubide besterenezinak gauzatzeko Nazio Batuen Batzordea: *Orígenes y evolución del problema palestino, 1917-1988* (New York, Nazio Batuak, 1990).

13 Ekialde Hurbilean dauden Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia (ingelesezko siglak: UNRWA) 1949ko abenduaren 8an jaio zen Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 302 (IV) Ebazpen bidez, Palestinako herritar errefuxiatuentzako berariazko agentzia gisa. A/RES/302 (1949ko abenduaren 8a). Hemen: https://unispal.un.org/UNISPAL.NSF/0/AF5F909791DE7FB0852560E500687282

14 NBE Migrazioak: World Report 2020. Migrazioen Mundu Erakundea (Geneva, NBE, 2019).

15 Batzar Nagusiaren 194 (III) Ebazpena: Palestina-Informe sobre el progreso del Mediador de las Naciones Unidas, A/RES/194 (1948ko abenduaren 11). Hemen: https://undocs.org/es/A/RES/194%20(III)



Jerusalemen ikuspegia, okupatuta eta anexionatuta dagoen hiria, eta era ilegalean Israelgo Estatuko hiriburutzat jotzen dena.

Anexioa, zatiketa eta memorizidioa

1948ko gerra oso esperientzia traumatikoa izan zen. Palestinaren haustura ekarri zuen, erabateko zatiketa. Palestina historikoaren hondamen fisikoa eragin zuen eta bertatik kanporatu zituzten herritar gehienak. Garbiketa etnikoak, zatiketa fisikoak eta dislokazio psikologikoak sekulako inpaktu suntsitzailea izan zuen herri palestinar osoarengan; suntsitzailea izan zen. 1948an Israelgo Estatua aldarrikatu zenetik, hiru multzotan zatituta geratu da biztanleria palestinarra:

1. Herritar errefuxiatuak, hau da, 1948ko gerraren ondorioz Palestina utzi behar izan zutenak.

2. Gerraren ondoren Israel barruan geratu ziren herritar palestinarrak –48ko palestinar edo barruko palestinar gisa ezagutzen dira palestinarren artean, eta arabiar-israeldar gisa israeldarren aldetik–.

3. Mandatuaren ondorengo Palestinako lurraldean bizi diren palestinarrak, Zisjordanian –Ekialdeko Jerusalem barne– eta Gazan, alegia. 1948tik 1969ra, horiek jordaniarren kontrolpean eta Egiptoren administraziopean geratu ziren hurrenez hurren, eta Israelgo militarrek okupatzen dute 1967tik.

Israelek itzultzeko eskubidea ukatzen dio lehenengo taldeari. Bigarrenen kasuan, Israelek administrazio militarraren menpe mantendu zituen 1948tik 1966ra, ghettoetan itxita, eta lurralde konkistatu berria espoliatu zuen Absenteen Jabetzaren Legearen izenean (1950)[16]. Horiei herritartasuna eman arren –ez nazionalitatea–, 1948an Estatu aldarrikatu zutenetik, Israelek etenik gabe garatu ditu Israelgo gutxiengo arabiarrak argi eta garbi diskriminatzen dituzten legeak, horiek mendean hartzeko eta egitura kolonial sortu berriarekiko erresistentzia edo mehatxu oro neutralizatzeko, horrela, pribilegio nazional juduak bermatu ahal izateko[17]. 1948an bereganatutako biztanleriaren eta lurraldearen gaineko kontrol-sistema finkatu ondoren, Israelek administrazio militarra altxatu zuen (1966) eta, urtebete

16 Israelek Absenteen Jabetzaren Legea erabili zuen, tresna nagusi gisa, palestinarrei zegozkien lurrak eta Waqf islamikoaren ondasunak bereganatzeko, aldarrikatu berri zen estatu osoan. Palestinar absenteen jabetzak nahiz presenteen jabetzak Absenteen Jabetzaren Zaintzapean jarri ziren, eta palestinarrek ez dute horiek eskuratzeko aukerarik izan ordudanik. Gaur egun, Israelek Israel barruko herri palestinarrak husten jarraitzen du legeria horren izenean. Absenteen Jabetzari buruzko Legearen inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus: https://www.adalah.org/en/law/view/538

17 Ikus Adalah erakundeak (The Legal Center for Arab Minority Rights in Israel) egindako konpilazioa (1939tik) eta Israelek ezarritako lege diskriminatzaileen datu-basea. Hemen: https://www.adalah.org/en/law/index. Israelek garatzen eta aplikatzen dituen lege diskriminatzaileei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus: https://www.adalah.org/en/content/view/7771

geroago, militarrak hedatu zituen berriz ere.

1967an, segurtasun-arrazoiak zirela-eta, Israelek azken lurralde-hedapena itxi zuen, eta guztiz konkistatu zuen Mandatutik geratzen zen Palestina osoa; bertan, isolamendu- eta kontrol-taktika berbera aplikatzen du. Herritarrak ghettoetan banatzeko antzeko sistemaren bitartez, gaur egun Israelek guztiz kontrolatzen ditu Zisjordaniako –Ekialdeko Jerusalem barne– eta Gazako zerrendako herritar palestinar guztiak. Horrenbestez, Palestinako herriaren banaketa eta zatiketa politiko eta geografikorako hirugarren tresna azaldu beharko genuke. Hura 1967an okupatutako lurraldean bakarrik oinarrituko litzateke, eta hiru eremu bereizi beharko lirateke:

1. Jerusalem; guztiz isolatuta geratu da Palestinako lurraldetik.

2. Gaza, erabateko blokeo genozidapean dago.

3. Zisjordaniako ghettoak, horiek ere gero eta isolatuagoak.



Apartheideko harresiaren ikuspegia, Nazioarteko Zigor Auzitegiak ilegaltzat jo duena.

1991n Madrilen abiarazi zen bake-prozesuan, lurraldea A, B eta C eremuetan banatzea erabaki zen, eta horrek areagotu egin zuen ghettoen araberako zatiketa geografikoa. Osloko Akordioak (1993-1994) sinatu zirenetik, Israel lurralde-banaketa horretaz baliatu da, pixkanaka, lurralde palestinar bat bestetik setiatzeko eta isolatzeko. Ugaritu egin ditu mugikortasun-mugak eta kontrol militar finkoen nahiz mugikorren kopurua, eta Gazako, Zisjordaniako eta Ekialdeko Jerusalemeko palestinarrak "deskonektatzen" saiatzen ari da.

2000. urtetik aurrera, Osloko Akordioek porrot egitean[18], Israelek berriz inbaditu zituen, fisikoki, erretiratuta utzi zituen Palestinako lurralde okupatuko (aurrerantzean, PLo) eremu guztiak. Orduan, agerian jarri zen, Bake Prozesuan zehar, Israelek kontrol-egitura segregazionista ezartzea lortu zuela 1967an okupatutako Palestinako lurraldean bizi diren palestinarren artean. Apartheid-harresia deitu-rikoaren eraikuntzak (2002) –eraikuntza-prozesuan dago oraindik, 2004an, Hagako Nazioarteko Justizia Epaitegiak (aurrerantzean, NJE) legez kontrakotzat jo arren[19]– are gehiago sendotu du herritar palestinar guztien banaketa; gainera, lurralde gehiago *de facto* eranstea ahalbidetu du, ahalik eta herritar palestinar gutxienekin.

Lurralde gehiagoren eta herritar gutxiagoren printzipio hori[20] argi eta garbi islatuta geratu da Jerusalem hiriaren kasuan, harresiari

18 Israelek uko egin zion azken estatusa negoziatzeari: mugak, Jerusalem eta errefuxiatuak.

19 Nazioarteko Justizia Auzitegia: *Opinión Consultiva de la Corte Internacional de Justicia sobre las consecuencias jurídicas de la construcción de un muro en territorio palestino ocupado*, A/ES-10/273 (2004ko uztailaren 9a).

20 Nazio Batuetako idazkari nagusia: *Situación de los derechos humanos en los territorios palestinos ocupados desde 1967*. Batzar Nagusiaren 73. bilkura-aldia, A/73/447 (2018ko urriaren 22a). Hemen: https://undocs.org/es/A/73/447. Eta Palestinako herriaren giza eskubideetarako errelatore bereziaren txostena: *Report of the Special Rapporteur on the situation of human rights in the Palestinian territories occupied since 1967*. GEK. A/HRC/37/75, 37. bilkura-aldia (2018ko ekainaren 14a), 18. or. Hemen: https://undocs.org/A/HRC/37/75

eta zigorgabetasunari esker, Israelek guztiz isolatu baitu hiria Zisjordaniako gainerako lurretatik. Jerusalemeko ekialdeko zatia *de facto* okupatu eta beretu zuenetik (1967an eta 1980an), Israelek hiriaren lurralde-perimetroa handitu du pixkanaka, "Jerusalem Handia" deiturikora Zisjordaniako eremuak gehituz. Hala eta guztiz ere, ez du ezkutatzen 2050. urterako proiektatutako plan urbanistiko berrien hedapena[21], Israelek Jerusalemeko lurralde-perimetroan txertatu nahi baititu Palestinarentzat funtsezkoak diren zenbait hiri, Zisjordania okupatuaren bihotzean bertan daudenak, hala nola, Jeriko, Betleem eta Ramallah. Bestalde, Israelek Jerusalemeko herritar palestinarrei bakarrik ematen die etengabeko bizitoki-estatusa eta, aldi berean, oso politika oldarkorrak aplikatzen ditu horiek hiritik behin betiko kanporatzeko. Horrek lurralde- eta demografia-distortsio handiagoa eragin ditu, zuzenean mehatxatzen baitu Jerusalemen bizi diren palestinarren giza segurtasuna.

Gazari dagokionez, 2005ean, Israelek Gazaren itxiera hermetikoa sustatu zuen, "Sharonen deskonexio-plana" deiturikoaren bitartez. Gaza Zisjordaniatik eta Ekialdeko Jerusalemetik guztiz isolatuta eta deskonektatuta geratu zen, eta gainera, sekulako blokeo genozidaren eraginpean geratu zen 2007tik. Zentzu horretan, Israelek Hamasen garaipena (2006ko hauteskundeetan) erabiltzen du, aitzakia moduan, terrorismo islamikoaren mamua elikatzeko eta bonbardaketen politika justifikatzeko (2006, 2008-2009, 2012, 2014), baita Palestinako lurraldeko zati txiki horretan bizi diren herritar zibilen aurkako zigor kolektibo errepikakorrak eta sistematikoak justifikatzeko ere.

Bestalde, Israel kolonoentzako errepide-sistema bereizia eraikitzen hasi da, PLo-ko Gai Humanitarioen Koordinaziorako Nazio Batuen Bulegoak (PLo-GHKNBB)[22] "oztopotzat" jotzen dituen mota guztietako oztopoak ezarriz: ehunka kontrol militar finkok eta mugikorrek, hondar-muinoek, eta ate eta hesi metalikoek, adibidez, herritar palestinarrek modu askean mugitu ahal izatea galarazten dute. Horren ondorioz, palestinarrek lurra, ura eta beste baliabide natural batzuk lortzeko mugak izaten dituzte, baita merkataritza arloko beste batzuk ere, eta horrek garatzeko aukerak murrizten dizkiete, ekonomian zuzenean eraginez eta herritar palestinar guztien lan egiteko eskubidea mugatuz[23].

Horri baimen- eta lizentzia-sistema osoa gehitu behar zaio, hainbat onargarritasun-kodetan egituratua (sistema hori adin-tarteetan eta sexuan oinarritzen da batez ere, baina baita herriaren eta identifikazio-txartel motaren arabera ere). Herri palestinarrak elkarren artean bereizteaz eta isolatzeaz gain, sistema horrek bizileku-baimenak baliogabetzea edo familien batasuna galaraztea du helburu. Horrek etengabeko ziurgabetasun-egoera sortzen du, komunitateen, familien eta pertsonen osasun mentalean zuzenean eraginez, bereziki emakume palestinarren artean. Baimen horiek igortzeko orduan arbitrariotasun handiak gertatzen dira eta une bakoitzean aplikatu beharreko arauak ere etengabe aldatzen dira, eta agintari israeldarrek estortsio eta larderia mota horiek erabiltzen dituzte herritar palestinarrak zapaltzeko eta menpean hartzeko.

Testuinguru horretan, ez dugu ahaztu behar Israelek zer nolako jazarpenak eta zirikak gauzatzen dituen Palestinaren ehun eta oinarri sozial komunitarioaren aurka. Herritar palestinarrek ehun komunitarioaren suntsipenari eta Palestinaren gizarte-egiturarekiko eraso sistematikoei egin behar diete aurre, eta gaur egun horixe da haien mehatxurik handiena. Erakunde eta elkarteen itxiera, eta ehun komunitarioaren eta kulturalaren garapenerako ezinbestekoak diren kultura-, kirol- eta hezkuntza-jardueren debekua ezinbestekoak dira herri palestinarraren identitatea eta existentzia mantendu ahal izateko. Horrenbestez, ez da harritzekoa Palestinako Gizarte Zibileko Elkarteak jomugan egotea, batik bat kritikoak direnak eta/edo Israelen apartheid- eta okupazio-jardunbideak ikusgai egiten dituztenak, baina bereziki Israelek zatitu eta desegin egin nahi duen ehun sozial eta komunitarioa sendotzeko oinarriak finkatzen dituztenak, eta horien artean emakume-elkarte ugari daude.

Zentro komunitario eta elkarteen bulego asko itxi egin dituzte agindu judizial bidez, askotan, komunitate palestinarrari garapen kulturalerako eta sozialerako behar-beharrezkoak diren gizarte-, kultura-, hezkuntza- eta arte-programak eta zerbitzuak galaraziz[24]. Horrez gain, ezinbestekoak diren beste zerbitzu mota batzuk kent-

21 *The Jerusalem Metropolis Master Plan. A Futuristic Vision for Metropolitan Jerusalem. 5800 Jerusalem 2050.* Online: http://www.jerusalem5800.com/

22 PLo-GHKNBB: *Occupied Palestinian Territory: Fragmented Lives*. Humanitarian Overview 2016 (Jerusalem, PLo-GHKNBB, 2017).

23 International Labour Office (ILO): *The situation of workers of the occupied Arab territories*, ILC.107/DG/APP (Geneva, 2018). Hemen: https://bit.ly/2rXvUoF. ILO: *The Palestinian Decent Work Programme*, 2018–2022 (ILO, 2018). Hemen: https://bit.ly/34T7tY1. World Bank: *Enhancing job opportunities for skilled women in the Palestinian territories*. World Bank Group. The Representative Office of Norway to the Palestinian Authority (Ramallah, 2018). Hemen: https://bit.ly/38680YD

24 2009an, agintari israeldarrek debekatu egin zuen UNESCOk Jerusalem "Kultura Arabiarraren 2009ko Hiriburu" gisa aitortu izana ikusgai egin zezakeen ekitaldi oro.



Eztabaida taldea Nablusko Beta nekazaritza-prozesaketa kooperatibarekin.

zen dizkiete, hala nola osasunarekin, osasun mentalarekin, informazio-eskubidearekin eta babes juridikoarekin lotuta dauden zerbitzuak, eta jazarpen hori Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak babestutako beste pertsona batzuengana hedatu da, hala nola, osasun arloko langile, kazetari, abokatu eta abarrengana, herri palestinarra bizirauteko sare instituzionalik eta komunitariorik gabe utziz.

Jazarpen hori argi eta garbi islatzen da giza eskubideak defendatzen dituzten aktibista palestinarren artean.

Mendez mende, botere kolonialek narratiba faltsuak sortu, garatu eta sakabanatu dituzte konkistatu dituzten lurraldeetako herri autoktonoen mendekotasun, esplotazio eta jazarpenetik eratorritako urraketa guztiak legeztatzen eta justifikatzen saiatzeko, euren interesak eta boterea ziurtatzeko helburu bakarrarekin, horiek edonolakoak zirela ere. Botere kolonialaren egitura izanik, sionismoak ere gauza bera egin du. Azken hamarkadetan, funts handiegirik gabeko aldarrikapen historiko-erlijiosoak barne hartzen dituen mugimendu nazionalista gisa aurkeztu da sionismoa, baina iritzi publikoak onartzeko modukoak. Halere, historiaren momentu batzuetan, Palestinako proiektu kolonial sionistarentzat oso zaila izan da Israelek herri palestinarraren aurka gauzatu duen indarkeria ezkutatzea edo justifikatzea, batik bat palestinarrak Palestinako lurraldeko berezko herritarrak direla.

Giza eskubideen elkarteek CERD Batzordeari helarazitako txostenean adierazten dutenez, "Israelek herri palestinarrarekiko egin duen politika bere osotasunean aztertuta bakarrik desegin ahal izango dugu herri palestinarraren gainean ezarritako zatiketa politiko, legal eta geografikoa, Israelen apartheid-erregimena sostengatzen duena"[25].

25 Al-Haq et al.: *Joint Parallel Report*...



Iman Abhaar, Ramallahko Emakumeen Sindikatuaren ordezkaria.

II. Giza eskubideen emakume defendatzaileak Palestinan

Emakumeen mobilizazio kolektiboa Palestinan. Hurbilketa historikoa[26]

Emakume palestinarrak funtsezko aktorea dira, duela mende batetik baino gehiagotik, Palestinaren askapenerako borrokaren historian. Modu informalean jarduten dute euren herriko giza eskubideen defendatzaile gisa, behar bezala antolatuta eta Palestinaren Askapen Nazionalerako Mugimenduaren barnean, baina, modu formalean, ez dakigu haien inguruko ia ezertxo ere. Dena den, XIX. mendean ere baziren emakumeen elkarteak, Palestinaren kolonizazio sionista abian jarri aurretik. Ongintzazko elkarteak edo elkarte konfesionalak ziren batez ere, eta laguntzeko jarduerak egiten zituzten, komunitatearen unean uneko premiei erantzunez eta behartsuenei lagunduz.

Emakumeen bat-bateko protesten inguruan dugun lehen erregistroa 1893-1894. urtekoa da, garaiko lehen kolonia sionistetako baten eraikuntzari aurre egiteko helburua izan zuena. Lehen kolono sionistek aurkitu zuten Palestina hura garai egituratu, produktibo eta moderno hartako beste edozein gizarte bezalakoa zen gutxi gorabehera. Bizitza soziala eta kulturala hirietan pilatzen zen, baina ekonomia nekazaritza-sektoreko ekoizpenari esker sostengatzen zen, izaera estentsiboko laboreetan bereziki (olibondoetan eta laranjondoetan batez ere). Esportatzen ziren produktu asko landa-eremuetatik iristen ziren, hau da, emakumeek botere eta askatasun dezente zuten lekuetatik.

Egoera horiek guztiek, garaiko gizarte batean bizitzetik eratorritako lan-, ekonomia-, kultura- eta politika-aukerek, eta batik bat hezkuntzaren bitartez bereganatutako kualifikazioak[27] eragin handia izan zuten Palestinan emakumeen mobilizazioa eta antolaketa errazteko orduan. Emakumeen Mugimendua erdi-mailako eta goi-mailako klaseetako hirietako emakumeek nagusitu zuten hasierako urteetan.

Baina lurraren kolonizazioak bete-betean kolpatu zuen nekazaritza-sektorea, hau da, herritar gehienek lan egiten zuten sektorea, horien artean, emakumeak. Hori dela-eta, gero eta emakume nekazari gehiagok bat egin zuten Palestinako Emakumeen Mugimenduarekin. Lurraren gaineko kontrola mantendu ezin izateak Palestina galtzea esan nahi zuen, hura atzerriko inbaditzaile berrien eskuetan uztea, alegia. Emakume-elkarteen lehen ekintzek batzorde espezifikoa sortzea izan zuten helburu, hala, herriko nekazarien, nekazaritzaren, merkataritzaren eta industriaren egoera aztertu ahal izateko, eta nekazaritzako bankuaren sorrera sustatzen amaitu zuten.

Emakume palestinarrek funtsezko bi arrazoi izan zituzten politikoki antolatzeko: atzerritarrak Palestinako lurretan sartzearen benetako mehatxua, Balfour Adierazpena (1917) argitaratu ondoren, eta urte horretan bertan gertatu zen Jerusalemeko konkista, Inperio britainiarrak utzitako (1922) Palestinako lurralde osoaren gainean Mandatua ezartzeko Nazioen Sozietatearen (1920) akordio bidez legitimatua.

Herri-jaikialdiak izan ziren britainiarrek Palestinan gobernatu zuten urte guztietan zehar (1917-1947): 1920-1921ean, eta 1929an, azkenik, 1936an Greba Orokorra deklaratu zuten arte, 1936-1939ko Matxinada Arabiar ezaguna piztu zuena.

Egoera horien guztien eraginez, emakumeak politikoki mugitzen hasi ziren eta, 1921ean, xede hertsiki politikoak zituen lehen emakume-elkartea sortu zen, Emakume Palestinarren Batasuna (ingelesezko siglak: PWU, Palestinian Women's Union). Horregatik guztiagatik, 1929an, eduki politikoak izango zituen emakumeen kongresua antolatu zuten, Palestinako Emakume Arabiarren I. Kongresua. Kongresua Jerusalemen antolatu zen, aurrez aurre zuten errealitateari erantzuteko ekintza erkideko politika garatzeko.

Kongresuaren emaitza gisa, emakumeek Emakume Arabiarren Elkartea (ingelesezko siglak: AWA, Arab Women Association, 1929) sortu zuten politikoki mobilizatzen ari ziren emakume guztiak elkarte bakar batean taldekatzeko eta emakumeen mugimendu bateratua sortzeko. 300 emakume inguruk parte hartu zuten Kongresuan eta, hura amaitzean, Adierazpena idatzi zuten. Adierazpen horretan, Balfour Adierazpena indargabetu zedila eskatu zuten, baita preso politikoak aske utz zitzatela, iritsi berri ziren kolonoei lurrak saltzeari utz ziezaietela eta palestinarrei ematen ari zitzaien tratu diskriminatzailea –juduen mesedetan– bertan

26 Atal hau egiteko orduan, Hanady Awni Muhiar Muñumer ikerlariak doktoretzarako egindako ikerketa-lana hartu dugu erreferentzia gisa: "El papel de la mujer en la construcción del Estado palestino" (doktorego-tesia, Madrilgo Complutense Unibertsitatea, 2016). Hemen: https://eprints.ucm.es/37632/1/T37168.pdf

27 Une hartako jarduera intelektuala, literarioa eta politikoa kontuan izan beharreko faktore esanguratsua da Palestinako emakume-mugimenduaren garapena ulertzeko orduan. Hezibide oneko emakumeek antolatzeko gizarte-askatasun handiagoa zuten eta mugimendu horren hasierako taktika gehienak idatzizko komunikazioan oinarritu ziren.



Nabila, Jalazoun (Ramallah) errefuxiatuen kanpamenduko martiriaren ama.

behera utz zezatela ere. Une horretatik aurrera, Palestinako Emakume Mugimendu egituratuaren eta antolatuaren aitzindari bihurtu zen 1929ko Kongresua, eta Jerusalem Palestinako Emakume Mugimenduaren kuartel nagusia bihurtu zen.

Emakumeak nazioarte osoaren arreta bereganatzen saiatu ziren herri palestinarra bizitzen ari zen egoerarekin lotuta, eta jarduera diplomatikoa eta idatziak erabili zituzten horretarako, baina gertakariak larriagotu ahala, boikot-ekintzak sustatzen eta manifestazioak eta protesta-ekintzak deitzen hasi ziren. Horiek gero eta arruntagoak eta jendetsuagoak bihurtu ziren, eta gero eta emakume gehiago parte hartzen hasi ziren, gizonekin batera. Emakume-elkarteek nekez erabiltzen zuten indarkeria estrategia gisa, baina, aldi berean, hirietako emakumeak ziren indar britainiarrak gehien kezkatzen zituen taldeetakoa, mehatxutzat jotzen baitzituzten, gizartea mobilizatzeko eta manifestazioak, grebak eta boikotak behar bezala errespeta zitezela bermatzeko zuten gaitasunagatik. Hori dela-eta, emakume palestinar batzuk atxilotu, espetxeratu eta ikertu zituzten, eta horiek osatu zituzten urte haietako preso politiko palestinar emakumeen lehen erregistroak.

Bestalde, emakume nekazariek landa-eremuetatik borrokatzen ari zirenei laguntzen zieten, eta batzuek zuzenean parte hartu zuten borroketan; horiek izan ziren lehen emakume palestinar gerrillarien aurrekariak.

30eko eta 40ko hamarkadetan, hau da, eskualdeetako kongresu feministak egin zirenean, 1937an Peel Batzordearen txostena argitaratu zen. Bertan, Palestinan Mandatua betetzea ezinezkoa zela adierazten zen eta Palestina bi estatutan zatitzea gomendatu zen lehenengoz: bata judua eta bestea arabiarra, kolonizazio atzerritarra berriz ere legitimo eginez. Zentzu horretan, Siriako, Libanoko, Irakeko eta Egiptoko feministek berea egin zuten kausa palestinarra. Mobilizatu eta eskualdeko lankidetza-sareak sortu zituzten, horrela, Palestinaren askapenerako borroka babestuz.

Horren guztiaren ondorioz, 1938ko urrian, Kausa Palestinarra Babesteko Emakumeen I. Ekialdeko Kongresua ospatu zen Kairon, emakume arabiarren eskualde-mailako lehen kongresua, Peel Batzordeak proposatutako Zatiketa Plana modu koordinatuan salatu zuena eta Palestinaren Gutun Nazionala babestu zuena. Herri palestinarraren eskubide besterenezinak defendatzeko politikoki mobilizatu ziren emakume palestinar aktiboen lehen belaunaldi horri "amen belaunaldia" esaten zaio eta historiako urte-liburuetan ager-

tuko dira, Palestinako gaur egungo emakume-mugimenduaren aurrekari gisa. Une hartan, mugimendu antikolonial eta nazionalista sortu zen, klaseen mugimendua.

1948ko gerraren ondoren, gizarte palestinarraren hausturak eta dislokazioak eraginda, 50eko eta 60ko hamarkadetan eskualde-mailan sortutako alderdi politikoetako –alderdi komunistak, nazionalistak eta panarabiarrak– kide egin ziren emakume palestinar asko, errefuxiatuak eta erdi-mailakoak batik bat. Emakumeak gizonek nagusitutako alderdi politikoetako kide egitean, alderdietan zeuden desberdintasunak jarri ziren agerian. Horregatik, emakumeek generoarekin lotutako gaiak txertatu behar izan zituzten, arazo nazionalez gain, euren lehentasunetara, Palestina aske uztea ezinezkoa baita herritar erdiek, emakumeek, parte hartzen ez badute.

1965ean, emakumeek Emakume Palestinarren Sindikatu Nagusia (GUPWom, General Union of Palestinian Women) sortu zuten. Momentuz, plataforma nazional horren pean artikulatzen da emakume palestinarren mugimendu osoa, eta hura da Palestinaren Askapenerako Erakundearen (aurrerantzean, PAE) barnean emakumeekin lotutako gai guztiak ordezkatzen dituen herri-erakundea, Palestinako Kontseilu Nazionalean ordezkaritza izateaz gain[28].

Baina, 1967ko okupazioan, Emakume Palestinarren Mugimenduak –mugimendu finkatua eta sendoa zen dagoeneko– erbestetik jardun behar izan zuen, eta emakumeen jarduketa-epizentroa Jerusalemetik Libanora eraman zuten. Bertan indar handia hartu zuten emakume palestinar errefuxiatuek, Hedapen Aldi Aldarrikatzaile (1971-1982) gisa ezagutzen diren urteetan zehar batez ere.

Denbora-tarte hori izan da, hain zuzen ere, Palestinako erresistentzia-mugimenduaren garairik luzeena eta arrakastatsuena, PAEk diasporan egin zuena, baita GUPWom sindikatuaren unerik gorenena ere[29]. Urte horietan, Nazio Batuen Erakundeak Emakumearen Nazioarteko Urtea aldarrikatu zuen 1975. urtea, eta emakumeen Mundu Konferentzia antolatu zuen Mexikoko Hirian.

Lau emakume palestinarrek enbaxadore gisa bidaiatu zuten Mexikora, PAEko ordezkari moduan, eta euren egunerokotasunean aurrez aurre aurkitzen zuten indarkeriaren berri eman zieten Konferentziako gainerako emakumeei, baita horrek euren garapena nola oztopatzen zuen ere. Baina, egiaz, honako hau izan zen Mexikoko Konferentziaren alderdirik interesgarriena: emakume palestinarrek salatu zuten "sionismoa arrazismo mota dela", emakumeak mendean hartzen zituela eta euren herria jazartzen zuela, euren lurraldetik kanporatzeko azken xedearekin. Emakume europar ez-komunistek eta emakume iparramerikarrek uko egin arren, emakume palestinarrek antzeko indarkeriak jasaten zituzten emakumeen babesa lortu zuten, eta sionismoaren salaketa –arrazismo mota gisa– txertatu ahal izan zuten Mexikoko Azken Adierazpenaren printzipioen artean. Hilabete batzuk geroago, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpen batek 1975eko Mexikoko Adierazpenean jasotako printzipioak txertatu zituen, honela[30]:

> *"Batzar Nagusiak, ... Mexikoko Adierazpena oinarritzat hartuta... bertan aldarrikatu baitzen "nazioarteko bakearen eta lankidetzaren printzipioak lortzeko ezinbestekoak direla askapen nazionala eta independentzia, eta kolonialismoa eta neokolonialismoa, atzerritarren okupazioa, sionismoa, apartheida eta mota guztietako arraza-diskriminazioak deuseztatzea, eta herrien duintasuna eta determinazio askerako eskubidea aitortzea... Horrenbestez, aitortzen du sionismoa arrazismo eta arraza-diskriminazio mota dela".*

1967tik aurrera, Palestinako erresistentzia-mugimenduaren erakunde guztiek helburu bat ezarri zuten: herri osoaren kontzientzia politikoa piztea, hau da, herri palestinarraren mobilizaziorako kontzientzia piztea. Ekialdeko Jerusalemen, Zisjordanian eta Gazan, okupazioaren eragina suntsitzailea izan arren, gizon eta emakumeek erresistentzia-mugimendua antolatu zuten okupazioari modu baketsuan aurre egiteko eta gizarte osoa mugiarazteko, betiere identitate nazionala defendatzeko eta Palestinaren askapenerako eta autodeterminaziorako borroka egiteko. 1987ko Intifada izan zen horren adierazpenik esanguratsuena.

Israelek potentzia okupatzaile gisa gauzatutako errepresiozko politiken eta praktiken igoerak Palestinako lurralde okupatuko emakumeen are politizazio eta parte-hartze han-

28 Palestinako Kontseilu Nazionalean parte hartu zuten 422 pertsonetatik 45 emakumeak ziren, eta 21ek ordezkari gisa parte hartu zuten. Hiru Palestinako Kontseilu Nazionaleko kide ziren eta beste bi Prestatze Batzordekoak. Baina, 1969an, Fateh-k PAEko boterea bereganatu zuenean, emakumeak ia guztiz desagertu ziren Palestinako Kontseilu Nazionaletik, eta horrek argi eta garbi islatu zituen alderdi politikoen barneko desberdintasunak.

29 Testuinguru horretan, Nazio Batuek Emakumearen Nazioarteko Urtea aitortu zuten 1975. urtea, eta emakumeen Mundu Konferentzia bat antolatu zuten Mexiko Hirian. Bertan, Emakumeentzako Nazio Batuen Hamarkada deitua hasi zen, 1995ean Beijingeko Konferentzian itxi zena.

30 Batzar Nagusiaren 3379 (XXX) Ebazpena: "Eliminación de todas las formas de discriminación racial", A/RES/3379 (1975eko azaroaren 10a). Ebazpenak aldeko 35 boto, kontrako 35 boto eta 32 abstentzio izan zituen. Baina, 16 urte geroago, Israelek baldintza bat ezarri zuen 1991ko Madrilgo Bake Konferentzian parte hartu ahal izateko: emakumeek Ebazpenean txertatzea lortu zuten esaldia kentzea, sionismoa arrazismo mota baten gisa gaitzesten zuena. Ipar Amerikaren eta Israelen presioak eraginda, Ebazpena beste batekin ordezkatu zen (4686 Ebazpena, 1991ko abenduaren 16koa). Hura izan da Nazio Batuen Erakundearen historiako ebazpenik laburrena.

diagoa eragin zuen 1967an. Okupazio militarraren menpe bizitzeagatik ezarritako mugek galarazi egin zituzten mota guztietako jarduera politikoak, klandestinitatetik salbu. Bestalde, antolatutako jardueretan gizonekin buruz buru parte hartu arren, emakumeak baztertuta sentitu ziren, baita zuzenean eragiten zieten gaiei buruzko eztabaidetan ere, bereziki langile-sindikatuetan eta erantzukizun- edo lidergo-postu batzuetara iristeko orduan. Horregatik guztiagatik, emakume palestinarren mugimenduak beste ikuspuntu batetik ikusi behar izan zituen emakume gisa zituzten eskubide zehatzak. Belaunaldi horretako emakumeek, euren interes zehatzak barne hartuko zituen lekurik aurkitzen ez zutela eta jazarpen hirukoitza –liberala, generoarena eta nazionala– jasaten zutela ikusirik, euren espazioak sortu behar izan zituzten 1978tik 1982ra. Horrela, emakume aktibisten belaunaldi berria sortu zen, eta beste modu batera bideratu zuten askapen nazionalaren eta emakumearen askapenaren arteko lotura. 1978tik aurrera, Emakumeen Mugimendu Berriaren inguruan hitz egiten hasi ziren, eta gaur egun hark bideratzen du Emakume Palestinarren Mugimendua.



Sheerin Al-Araj, ekintzailea eta Al-Walajako kontseiluko kidea, soldadu israeldarrei aurre egiten, bere jaioterria inguratzen duen harresi israeldarraren kontrako protesta batean.

Politika kolonialek giza eskubideen emakume defendatzaile palestinarren ekintzetan duten eragina

GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA PALESTINAN. EGINKIZUN ARRISKUTSUA

Bizitza publikoan parte hartzeko eskubidea –giza eskubideen sustapena eta babesa barne– funtsezko eskubidea da, eta halaxe dago jasota Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 25. artikuluan. 1999an, NBEko Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Adierazpena onartu zuen eta, bertan adierazten denez, pertsona guztiek dute, banaka edo taldean, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babestu eta gauzatu daitezela sustatzeko eskubidea (1. artikulua). Horrez gain, giza eskubideen defendatzaileei laguntza eta babesa eskaini behar zaiela adosten du, horiek betetzen duten eginkizunaren testuinguruan. Gainera, gogorarazten du guztion funtzioa dela eskubide horiek defendatzea[31]. Giza Eskubideen Kontseiluak (GEK) "giza eskubideen defendatzaile" adierazpena erabiltzen du, banaka edo taldeka, funtsezko eskubide eta askatasun horiek babestearen eta gauzatzearen alde borrokatzeko ahalegina egiten duten guztiak deskribatzeko, nazioan bertan nahiz nazioartean[32].

2019ko urtarrilean, giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruzko errelatore bereziak giza eskubideen emakume defendatzaileei buruz idatzi zuen bere txostena. Bertan azpimarratzen denez, mundu osoko emakumeek ezinbesteko eginkizuna bete dute, historian zehar, giza eskubideak sustatzeko orduan. Horiek osatu dute giza eskubideen gaur egungo nazioarteko sistemaren egitura eta, gainera, lidergo-funtzioak bete dituzte gobernuko nahiz gizarte zibileko eremuetan[33]. Emakumeen giza eskubideak sustatzeko edo babesteko jarduten duten emakumeak eta emakumeen giza eskubideak defendatzen dituzten edo genero-berdintasunaren alde lan egiten duten guztiak –"emakumearen giza eskubideen defendatzaileak" (EGED)– indarkeria eta jazarpen zehatzen biktima izaten dira askotan. Euren homologoen arrisku berberei egiten diete aurre, baina, genero-indarkeriarekin lotutako mehatxuak eta beste

31 Batzar Nagusiaren 53. bilkura, A/RES/53/144 (1999ko martxoaren 8a). Hemen: https://bit.ly/2gdz6kt

32 NBGEGK: *Sobre los defensores de los derechos humanos*. Online: https://bit.ly/2JCmdTY. Ikus, gainera, Europako Batzordearen *European Union Guidelines on Human Rights Defenders* (Brusela, 2008). Hemen: https://bit.ly/2Qfcx4q eta ELGEren *Guidelines on the Protection of Human Rights Defenders* (Mindova, 2014). Hemen: www.osce.org/odihr

33 GEK. 40. bilkura-aldia. A/HRC/40/60 (2019ko urtarrilaren 10a), 1. Hemen: https://undocs.org/es/A/HRC/40/60



Soldadu israeldar bat gazte palestinar baten agiriak egiaztatzen, Zisjordaniako kontrol-postu batean.

modalitate batzuk ere jasaten dituzte emakumeak izateagatik. Gainera, horien eginkizunak familiaren kode tradizionalei edo aurrez zehaztutako genero-funtzioei aurre egiten diela uste da askotan, eta "horrek agintarien eta, oro har, biztanleria osoaren etsaitasuna sor dezake. Hori dela-eta, oso garrantzitsua da aktibista talde horrek aurrez aurre aurkitzen dituen erronka zehatzak aitortzea, babes-mekanismoak eta tokiko nahiz nazioarteko beste erantzun batzuk indartzeko"[34].

Palestinan diharduten giza eskubideen defendatzaileek hainbat metodo baketsu erabiltzen dituzte jasan ohi dituzten giza eskubideen urraketak salatzeko eta kasuan kasuko erantzukizunak eskatzeko. Metodo horien artean ditugu, esaterako, astero antolatzen diren protesta baketsuak, salaketa-lanak, giza eskubideen urraketen ikerketak, komunitatearen eta elkarteen indartzea, eta abar. Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak behin baino gehiagotan adierazi du bere kezka giza eskubideen erakunde palestinarrek jasaten duten errepresiozko eginkizun arriskutsuari dagokionez[35]. 2006an, Hina Jilanik, giza eskubideen defendatzaileek bizi duten egoerari buruzko idazkari nagusiaren ordezkari bereziak, Palestinako lurralde okupatuetako eta Israelgo giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruzko txosten osoa idatzi zuen, eta honako hau azpimarratu zuen: "okupazioaren jardunbideetatik eta politiketatik eratorritako baldintzek arrisku larrian jartzen dituzte bertan lan egiten duten giza eskubideen defendatzaileak, eta guztiz oztopatzen dute haiek betetzen duten eginkizuna"[36]. Ordezkari bereziak adierazi zuenez, honako hauek dira bere kezka nagusiak: "tortura, adierazpen- eta biltze-askatasunaren errepresioa, eta giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeen aurkako mehatxuak"[37].

Ordudanik, Palestinako giza eskubideen egoerak okerrera egin du eta baldintzek hobera egiteko itxaropen gutxi daude. Israelek Palestinako lurraldean gauzatzen duen okupazio militarra da mundu modernoan gehien luzatu den okupazioa, eta gaur inoiz baino larriagoa da[38].

Azken urteetan modu kezkagarrian hazten ari dira jazarpenak eta mehatxuak Palestinan giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa salatzeko, eragiteko eta babesteko funtzioak betetzen dituzten agente eta aktore sozialen aurka. "Palestinako eta Israelgo giza eskubideen defendatzaileek gero eta leku gutxiago dute euren eginkizuna betetzeko[39]. Giza Eskubideen Kontseiluak egindako azken txostenean berriz aipatzen da gizarte zibileko aktoreen aurkako mehatxuen eta jazarpenen igoera. Agintari israeldarrek neurri jakin batzuk erabiltzen jarraitu dute horien lana oztopatzeko eta defentsarako eta liskarrerako espazioa murrizteko. Neurri horien artean, honako hauek ditugu, besteak beste: mugimendu-murrizketak, bidaiatzeko aukera debekatuz eta bisei uko eginez, estigmatizazio publikoa, ausazko atxiloketak, eta tratu txarrei buruzko txostenak[40].

Giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeen aurkako jazarpenak

34 NBGEGK: *Los defensores de los derechos humanos de las mujeres*. Online: https://bit.ly/2pMtwjL

35 NBGEGK: *Israel Must Ensure Protection For Issa Amro and Other Human Rights Defenders, say UN Special Rapporteurs – Press Release*, 2019ko apirilaren 10a. Hemen: https://bit.ly/32jhrQp

36 CES. 62. bilkura-aldia. E/CN.4/2006/95/Add.3 (2006ko martxoaren 18a), 2. Hemen: https://undocs.org/es/E/CN.4/2006/95/Add.3

37 Ibidem, 4.

38 Batzar Nagusiaren 72. bilkura-aldia, A/72/556 (2017ko urriaren 23a), 6/24. Hemen: https://bit.ly/2ClSTeZ. Ikus 2334 (2016) Ebazpena, NBEren Segurtasun Kontseiluak onartua, Palestinako lurralde okupatuetako kokalekuen legezkotasunik eza adierazten duena. Hemen: https://bit.ly/2pPdEgh

39 GEK. 34. bilkura-aldia, A/HRC/34/70 (2017ko apirilaren 13a), 8-9. Hemen: https://bit.ly/34CBlaA

40 GEK. 40. bilkura, A/HRC/40/73 (2019ko martxoaren 15a), 6-7. Hemen: https://bit.ly/2PmvphF

eta mugak herritar israeldarrengana hedatu dira, 2011n onartutako boikotaren aurkako legearen bitartez –formalki, Israelgo Estatuari Boikot bidez Kalteak Saihesteko Legea[41]–, *Nakbari* buruzko legeen eta GKE-en Gardentasun Legearen (2016an onartua) bitartez. Izan ere, horiek eragin handia dute adierazpen-askatasunari eta finantzazio-gaitasunei dagokienez[42]. Gainera, Palestinako lurralde okupatuan lan egiten duten giza eskubideen nazioarteko erakundeek eta gobernuarteko eta Nazio Batuetako erakundeek ere mehatxuak jasotzen dituzte, eta haien eginkizuna oztopatzen da. 2019ko azaroan, adibidez, kanporatu egin zuten Human Rights Watch erakundearen Israelgo eta Palestinako zuzendari Omar Shakir jauna[43].

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ETA DISKRIMINAZIOA PALESTINAN. KOLONIALISMOAREN ETA PATRIARKATUAREN ARTEAN

Aski ezaguna da, Palestinan, emakumeek funtsezko bi borrokari aurre egiten dietela: batetik, euren eskubide politiko, ekonomiko eta sozialetan berdintasuna lortzeko borrokari, **gizarte patriarkalaren** esparruan; eta bestetik, euren autodeterminaziorako eta oinarrizko askatasunetarako eskubideak lortzeko borrokari, **okupazio militar luzatuaren** esparruan –haren baitan egiten diren praktika kolonial asko apartheid-krimentzat hartzen dira–. Bi borroka horiek erresistentzia handia mantentzen dute, egunez egun, euren bizitzako ia alderdi guztietan modu zuzenean, estrukturalean eta kulturalean agertzen diren mota guztietako indarkeriei dagokienez. Horrek esan nahi du emakumeek eta neskek Palestinan jasaten duten genero-indarkeria eta feminizidioa okupazioarekin eta apartheidarekin lotutako egituren emaitza direla batik bat, baita Palestinako eta Israelgo gizartean horren sustraituta dauden jarrera patriarkalekin eta genero-estereotipoekin ere, eta guztiz onartuta daude gainera okupazioaren testuinguruan.

Egitura horien, kolonialismoaren, apartheidaren eta patriarkatuaren arteko, edo indarkeriaren manifestazio zehatzen arteko lotura –okupazioaren eta genero-indarkeriaren testuinguruan– oso konplexua da, maila asko barne hartzen baititu, eta elkar berrelikatzen direla esan genezake. Emakumeen aurkako okupazioaren mugimendu-murrizketek eta erasoek, adibidez, ingurune kontserbatzaileagoa elikatzen dute, emakumearen segurtasunik eza eta protekzionismoa oinarritzat hartuta[44]. Shalhoub-Kevorkian eta Daher-Nashif (2013) aktibistek, adibidez, argi eta garbi deskribatzen dute izaera kolonialak zer nolako eginkizuna betetzen duen, gizarte palestinarraren barruan, emakumearen egoerarekin eta genero-harremanekin lotutako arazoak eraikitzeko orduan. Era berean, kolonizazioaren testuinguruak eta komunitate palestinarraren gero eta lurralde-banaketa handiagoak feminizidioa sustatzen dutela adierazi dute. Azterketak berresten duen moduan, ezinbestekoa da feminizidioaren azalpen "kultural" sinplistetatik haratago joatea eta moduei arreta handiagoa eskaintzea, hau da, egitura politikoak, ekonomikoak eta sozialak egitura kolonial baten gainean eraikitzen eta sostengatzen direla kontuan izatea[45].

Palestinako Agintaritza Nazionalaren Emakumeari buruzko Gaien Ministerioak egindako Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko 2011-2019 Estrategia Nazionalean ere azpimarratzen da harreman konplexu hori, eta gogorarazten du Israelen okupazioak emakume palestinarren marjinazioa areagotzen duela, zuzenean nahiz zeharka. Horren guztiaren ondorioz, emakumeek mota guztietako indarkeriak jasaten dituzte, modu fisikoan nahiz psikologikoan. Zeharkako ondorioen artean ditugu, besteak beste, lege-sistema palestinarrari jartzen zaizkion oztopoak, emakume palestinarrentzako lege-babesa eskaintzea are gehiago korapilatzen duena, edo Palestinako Kontseilu Legegilearen gaitasungabetzea, kide asko atxilotuz[46]. Izan ere, horrek nabarmen murrizten du Parlamentu baten funtzionamendu arrunta, emakumeen eskubideekin lotutako legerian aurrera egin ahal izateko[47].

Duela gutxi, genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurka egindako mobilizazio feminista batek palestinar guztiak astindu ditu, baita

41 2017an, zuzenketa bat txertatu zen Israelera (eta beraz, Israelen kontrolpean dauden PLo-etara) sartzea galarazten duen Legean. Haren bitartez, Israelera sartzeko bisa galarazten zaie boikot-deialdiak argitaratzen dituzten edo horrelakoak argitaratzen dituzten erakundeekin lan egiten duten pertsona guztiei, 2011ko legean zehazten den moduan.

42 CEDAW. CEDAW/C/ISR/CO/6 (2017ko azaroaren 17a). Hemen: https://bit.ly/33oeJud

43 Human Rights Watch: *Israel expulsa al director de Human Rights Watch*, 2019ko azaroaren 25a. Hemen: https://bit.ly/2LmPVeV

44 MIFTAH et al.: *Palestinian women: The disproportionate impact of the Israeli occupation* (2018): 8. Hemen: https://bit.ly/2NpUkPN. Txostenaren egileak: *Palestinian Initiative for the Promotion of Global Dialogue and Democracy, Palestinian Working Woman Society for Development, Women's Centre for Legal Aid and Counselling, Women Media and Development* eta *Karama*.

45 Nadera Shalhoub-Kevorkian eta Suhad Daher-Nashif: "Femicide and Colonization: Between the Politics of Exclusion and the Culture of Control", *Violence Against Women*, 19, 3. zk. (2013): 7-9. https://doi.org/10.1177/1077801213485548

46 Gaur egun, Palestinako Kontseilu Legegileari dagozkion bederatzi pertsona daude Israeleko kartzeletan espetxeratuta, horietatik bost administrazio-atxiloketen bitartez.

47 MoWA: *National Strategy to Combat Violence Against Women 2011 – 2019. Palestinian National Authority. Ministry of Women's Affairs* (Ramallah, 2011): 9-10.



Emakume palestinar batek aurre egiten dio polizia israeldarrari 2013ko Nakba eguneko protestetan, Damaskoko atean, Ekialdeko Jerusalemen.

Israel barrukoak eta diasporan bizi direnak ere[48]. *Tala`at*[49] deituriko mugimenduak salatzen duenez, guztiz deuseztatu behar dira emakume palestinarren aurkako desberdinkeria eta indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala eta ekonomikoa justifikatzen duten gizarte palestinarraren zenbait tradizio; era berean, gogorarazten du emakumeen askapenik gabe ezinezkoa dela Palestinaren askapen nazionala lortzea. Isra'a Ghrayeb-en hilketa izan zen protestaren eragilea, familiaren eskuetan gertatutako beste feminizidio-kasu bat. *Free homeland, free women*, *No free homeland without free women* edo *There is no freedom without free women* esloganekin, *Tala`at* mugimenduaren xedea da emakumeen eskubideen aldeko borroka sistema patriarkalaren aurka bideratzea, Palestina aske uzteko borroka askoz ere zabalago baten barnean, okupazio kolonialaren testuinguruan. Hau da, "patriarkatuaren eta indarkeria patriarkalaren aurkako borroka, Palestina aske uzteko borroka politiko, ekonomiko eta sozialaren barnean"[50]. Okupazioa eta kolonizazioa kontrolatzeko moduek are gehiago indartu dituzte egitura patriarkalak. Gainera, generoaren eta klaseen zapalkuntza areagotu dute gizarte palestinarrean, eta mugimendu honen bitartez askapen nazionalerako borrokaren erdigunean jarri nahi da feminismoa. Borroka justua eta feminista bihurtu nahi du askapen nazionalaren aldeko borroka:

> *"Ezin ditugu bereizi gaur gertatzen ari diren indarkeria-kasuak eta Palestinak bizi duen errealitate politiko eta ekonomikoa, ezta erregimen sionistaren politikak ere, gizon-emakume palestinarrak txirotzeko eta lekualdatzeko helburua dutenak... Gai hauek Palestinako emantzipazioaren diskurtsoaren erdigunean jartzea eta ekintza politiko palestinarraren erdigunean jartzea da Tali'at mugimenduaren xedea, herri askea eta gizarte askea eraikitzeko ahaleginaren baitan"*[51].

48 Manifestazioak egin ziren Ramallah, Betleem, Jerusalem, Jaffa, Haifa eta Nazareten, baita kontzentrazioak ere, Beiruten eta Berlinen.

49 طالعات arabiarrez, hau da, "(kalera) irteten", "*raising up*" edo "*going out*".

50 PC Zoe: "Palestinian women to march against gender-based violence", *Peoples Dispatch*, 2019ko irailaren 25a. Hemen: https://bit.ly/31P0Eo1

51 Hala Marshood: "Tali'at: Putting feminism at the center of Palestinian liberation", *Mada*, 2019ko urriaren 26a. Hemen: https://bit.ly/2Wgzntz. Gure itzulpena.

GIZA ESKUBIDEEN EMAKUME DEFENDATZAILEEN KRIMINALIZAZIOA ETA ETENGABEKO JAZARPENA PALESTINAN. ESPETXERATZE ETA ZIGOR-NEURRIAK

Israelek etengabe urratzen du giza eskubideak defendatzeko eskubidea, herri palestinarraren bizitza politikoaren eta publikoaren alderdi guztietan. Zibilen eta buruzagi politikoen legez kontrako errepresioa gauzatzen du horretarako, eta Palestinako giza eskubideen defendatzaileek betetzen dituzten eginkizunen *sekuritizazioa* eta kriminalizazioa dira bere krimenak justifikatzeko erabiltzen dituen estrategia nagusiak[52]. Giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeak hilketa estrajudizialen eta ausazko atxiloketen biktima izaten dira. Emakume horiek indarkeria orokortua, larderia eta zirikak jasaten dituzte, eta ez dute babesteko ia bide instituzionalik eta mekanismo juridikorik.

Emakumeen aurkako indarkeriari, kausei eta ondorioei buruzko errelatore bereziak 2016an Palestinara egindako bisitan egindako txostenaren arabera, gora egin du giza eskubideak eta emakumeen eskubideak defendatzen dituzten emakume aktibista palestinarren aurkako indarkeriak, baita haien protesten kriminalizazioak ere[53]. 2015eko apirilean, adibidez, Nabi Saleh inguruko asteko protestetan, Manal Tamini giza eskubideen emakume defendatzaile palestinar ospetsua zauritu zuen soldadu israeldar batek, hankan tiro eginda[54]. Emakume aktibista eta kazetari askok jasan dituzte gauez egindako sarekadak, atxiloketak eta zigor-neurriak "zirikaden" aitzakiarekin, Israelen okupazio-jardunbideak kritikatu ondoren adibidez, baita Facebook bezalako sare sozialen bitartez kritika egin dutenean ere, emakume palestinarren adierazpen-askatasuna modu esanguratsuan urratuz[55].

Israelek honako mekanismo juridiko/politiko hauek erabiltzen ditu giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeen protestak zapaltzeko eta kriminalizatzeko: **Palestinako lurralde okupatuetan aplikatutako agindu militarrak** eta aurrekoek araututako **administrazio-atxiloketaren** prozedura. Israelek salbuespenezko estatua mantentzen du indarrean den Larrialdi Legearen bitartez, Britainiarren Mandatuak 1945ean promulgatutako eta Israelek bere horretan mantendutako legea, hark administrazio-atxiloketa erabiltzea ahalbidetzen baitu. Administrazio-atxiloketari esker, okupazio-indar israeldarrek mugarik gabe atxiki ditzakete preso palestinarrak, salaketarik edo epaiketarik egin beharrik izan gabe. Pertsona horiek salatzeko arrazoien inguruko informazioa edo ebidentziak isilpean sailkatzen dira, eta beraz, atxilotuek eta haien abokatuek ez dute horietara jotzeko aukerarik. Administrazio-atxiloketak sei hilabeteko indarraldia izaten du, baina hura mugarik gabe berritu daiteke[56]. Palestinako lurralde okupatuetan administrazio-atxiloketak eta auzitegi militarrak dira xede politikoak dituzten tresna juridikorik erabilienak ahots kritikoak zapaltzeko eta isilarazteko, eta protesta-mobilizazioak eta Palestinako giza eskubideen defendatzaileen ekintzak zigortzeko, baita Palestinako Kontseilu Legegileko parlamentariak ere.

Agindu militarrei dagokienez, **101. agindu militarra** gailentzen da, 1967ko abuztutik indarrean dagoena eta jarduera zibiko asko kriminalizatzen dituena, honako hauek, esaterako: protesten antolaketa eta horietan parte hartzea; batzarretan edo bijilietan parte hartzea; banderak eta bestelako sinbolo politikoak astintzea; eta material politikoa inprimatzea eta banatzea. Gainera, **1.651. agindu militarrak** –2010eko maiatzean sartu zen indarrean– aurrez emandako zenbait agindu sistematizatzen ditu. Agindu horren arabera, iritzi publikoan eragina izan dezakeen egintza oro hartzen da "zirikada politikotzat", eta beraz, guztiz debekatuta dago, "kontrako erakunde bati babesa emateagatik". Beste agindu batek berariaz debekatzen ditu agindu militar bidez ilegaltzat jotako erakundeekiko sinpatia agertzen duten jarduerak, hala nola kontsignak abestea eta bandera bat edo beste era bateko sinbolo politikoak astintzea[57].

Ikerketa honen baitan elkarrizketatutako emakume gehienak izan dira atxilotuak eta torturen edo tratu txar fisiko eta psikologikoen biktimak atxilotuta zeuden bitartean, eta kasu gehienetan nabarmena izan da defentsa juridikorako

52 NOVACT: *Human Rights Defenders in Israel and Palestine. A group in risk. International Institute for Nonviolent Action* (2016). Hemen: https://bit.ly/347oa0U

53 GEK. 35. bilkura-aldia, A/HRC/35/30/Add.2 (2017ko ekainaren 8a). Hemen: https://bit.ly/2W95Bqx

54 WCLAC: *Submission to CEDAW Pre-sessional Working Group - (25-29 June 2016). Suggested List of Issues Prior to Reporting for Israel* (2016): 5.

55 CAC et al.: *Palestinian Women Under Prolonged Israeli Occupation: The Gendered Impact of Occupation Violence, Women's International League for Peace and Freedom* (2017): 24. Txostena egin duten erakundeak: *Community Action Center, Palestinian Center for Development and Media Freedoms, Women's Centre for Legal Aid and Counseling* eta *Women's International League for Peace and Freedom*. Ikus, halaber, WCLAC: *Voces de Mujeres. A la sombra de los asentamientos. Informe 2010 sobre las violaciones israelíes de los derechos humanos de las mujeres palestinas* (Madril, Palestinako GKE taldea, 2011). https://bit.ly/2Xlb1t8
Yesiri egindako elkarrizketa pertsonala, Campo de Jalazone, 2019ko urriaren 9a.

56 Addameer: *Administrative Detainees* (2018ko abendua). Online: https://bit.ly/2rcLfRE

57 Addameer: *Órdenes militares israelíes que conciernen al arresto, la detención y el enjuiciamiento de los palestinos*. Online: https://bit.ly/36OWJeG



Emakumeek aurre egiten diete soldadu israeldarrei Susya herrixka palestinarraren eraispenaren kontrako manifestazio batean, Hebrongo muinoen hegoaldean.

mekanismorik eza. Elkarrizketetan jasotako testigantzak bat datoz presoak defendatzeko elkarte palestinarrek, Addameer elkarteak –Israelgo kartzeletan espetxeratuta daudenen giza eskubideak defendatzen dituen elkarte palestinar ezagunenetakoa–, CEDAW batzordearen txostenek, eta NBEren nahiz giza eskubideen defentsarako gizarte zibileko elkarteek egindako txostenetan jasotako salaketekin.

1967an Israel Palestina okupatzen hasi zenetik, gutxi gorabehera 10.000 emakume palestinar atxilotu dituzte indar militar israeldarrek. Addameer elkarteak jasotako estatistiken arabera, 2019ko irailean 43ra igo zen Israelgo kartzeletan atxilotuta zeuden emakume palestinarren kopurua[58]. 2015etik, Israelek areagotu egin ditu atxiloketak eta sarekadak, eta horrek nabarmen handitu du Israelek espetxeratutako emakumeen eta nesken kopurua. Gehienetan, errepideetan, Israelgo kontrol militarretan edo gauez egindako sarekada bortitzetan (haien etxeetan) atxilotzen dituzte emakume eta neska palestinarrak[59].

Aktibista palestinarren administrazio-atxiloketen kasu ugari daude, Khalida Jarrar parlamentariaren atxiloketaren kasu enblematikoa, adibidez, agintari israeldarrek 2015ean atxilotua[60]. Khalida Jarrar parlamentari palestinarra da, giza eskubideen aktibista eta feminista. 2019ko azaroaren 3an, igandea, Israelgo auzitegi militarrak zortzi egunez luzatu zuen Khalida Jarrar buruzagi politiko palestinarraren atxiloketa, Ofereko kartzelan. Jarraren alaba Yafak sare sozialetan jakinarazi zuenez, fiskaltza militarra isilpeko frogetan oinarritu zen Jarrar giltzaperatuta mantentzeko. Jarrar 2019ko urriaren 31, osteguna, argitu aurreko orduetan atzeman zuten 70 soldadu armadunek baino gehiagok eta 12 ibilgailu militarrek, Ramallahko bere etxean. Israelen administrazio-atxiloketa bidez 20 hilabetez espetxeratuta egon ondoren atxilotu zuten berriz ere, aske utzi eta zortzi hilabetetara: kargurik edo epaiketarik gabe espetxeratu zuten, isilpeko frogetan oinarrituz oraingoan ere.

Oro har, atxilotutako emakume palestinarrei ez zaizkie euren eskubideak edo atxiloketaren arrazoiak azaltzen. Askotan, ez zaie abokaturik eskaintzen eta zenbait egunez izaten dituzte giltzaperatuta, eta galdeketak egiten dizkiete epaitu aurretik. Horietako askok torturak eta tratu txarrak jasaten dituzte *Shin Bet* (Israelgo inteligentzia eta barne-segurtasuneko zerbitzua) zerbitzuko agenteek egindako galdeketa-prozesuetan zehar, eta sufrimendu fisiko eta mental larriak eragiten dizkiete gainera. Galdeketa-metodoetan, honako hauek jasan behar izaten dituzte: isolamendu luzeak, atxiloketa-baldintza krudelak, hesgailu eta eskuburdinen gehiegizko erabilera, lo-gabetzeak,

58 Ikus Addameer elkartearen estatistikak. Online: http://www.addameer.org/statistics

59 Addameer: *Israeli Occupation Continues to Violate the Rights of Palestinian Women*, 2018ko martxoa. Online: http://www.addameer.org/ar/node/3139

60 GEK. 35. bilkura-aldia, A/HRC/35/30/Add.1 (2017ko ekainaren 8a). Hemen:: https://bit.ly/2WaRkJP

elikagairik eta urik eza denboraldi luzeetan zehar, komunera joateko, dutxatzeko edo arropaz aldatzeko aukerarik eza zenbait egunetan edo astetan, estres-posizioetan jartzeko aginduak, oihuak, irainak eta sexu-jazarpenak[61]. Giza eskubideak defendatzeko elkarteen txosten askotan salatzen da atxilotutako emakume palestinarrek jasaten dituzten tratu txarrak eta torturak, baita horiek jasandako lo-gabetzeak, estres-posizioak eta indarkeria fisikoa ere[62]. Hori da Hiba Al-Labadiren kasua. Hark 40 eguneko gose-greba egin zuen bere administrazio-atxiloketaren eta espetxeratze-aldian zehar jasandako tratu txarren harira.

Bestalde, Israelgo Presondegi Zerbitzuak nolabaiteko arduragabekeria-politika sistematikoa bereganatu du bere kartzeletan eta atxiloketa-zentroetan atxilotuta dauden emakume preso palestinarrei dagokienez. "Emakume palestinarrak Hasharongo eta Damongo kartzeletan giltzaperatuta egon ohi dira. Bi kartzela horiek 1967ko lurralde okupatutik kanpo daude kokatuta, Genevako Laugarren Konbentzioaren 76. artikulua bete-betean urratuz[63]. Gainera, Hasharongo eta Damongo espetxeetan ez dago generoarekiko ikuspegi sentikorrik, eta beraz, preso dauden emakumeek espetxeratze-baldintza gogorrak jasaten dituzte: medikuen arduragabekeria, hezkuntzarik eza, senitartekoen bisitarik eza –baita seme-alaba txikiak dituzten amen kasuan ere–, bakarkako konfinamenduak, jendez gainezka dauden ziegak –askotan intsektuz eta lurrez beteak– eta argi naturalik eza. Presondegietako agintariek oso gutxitan asetzen dituzte osasunarekin eta higienearekin lotutako premia pertsonalak, baita haurdun dauden emakumeen kasuan ere[64].

Israelgo espetxe-sistemak zigor-ekintzen espektroa antolatu du "administrazio-atxiloketaren" irudipean[65], honako hauek barne hartzen dituena: etengabeko tortura psikologikoa eta irainak haien osotasun fisikoaren aurka. Erresistentzia politikoaren zenbait ekintzaren bitartez, okupazio sionista eta haren kolonizazio- eta apartheid-proiektua salatzeagatik bakarrik espetxeratzen dituzte.

Ikerketa hau egiteko, 25 elkarrizketa baino gehiago egin zaizkie elikagaien produkziora eta produktu tradizionaletara bideratutako kooperatibetako emakumeei, olibondo-eremuetan kolonoen presioari aurre egin behar izan dioten emakume nekazariei, euren gizartearen prestakuntza eta hezkuntza politikoarekiko konpromisoa hartu duten emakume gazteei, familiei laguntzeko batzordeetako emakumeei eta haurrak zaintzen dituzten haur-eskoletako andereñoei. Hori guztia okupazio israeldarraren etengabeko jazarpenaren pean. Elkarrizketa horiek atxiloketen patroia islatzen dute, baita erasoei dagokienez ere. Horien artean, honako hauek azpimarratu behar ditugu: tortura fisikoak edo euren gorputzen kontrako munizio-inpaktuak, askotan, osasun fisikoarekiko eta psikologikoarekiko ondorio larriak utziz. Hala eta guztiz ere, erresilientzia komunitarioa mantendu dute[66], eta horrek indartu egiten ditu Palestinaren askapenerako borroka- eta antolaketa-praktika kolektiboak.

Hurrengo kapituluan, UPWC erakundearen borrokarako eta erresistentziarako dinamikak agertzen dira, giza eskubideen aldeko emakume defendatzaileek osaturiko erakundea. Emakume horiek ordezkaritza-gorputzetan nahiz oinarrizko toki-komunitateetan parte hartzen dute.

61 Addameer: *Israeli Occupation Continues*...

62 Al-Haq et al.: *Joint Parallel Report*... Amnesty International: *Israel y Territorios Palestinos Ocupados: En estado crítico un detenido palestino sometido a tortura legalmente autorizada*, 2019ko urriaren 30a. Online: https://bit.ly/34 C9pnk. Btselem: *Torture and Abuse in Interrogation*, 2017ko azaroaren 11. Online: https://www.btselem.org/tortur.

63 NBE: *Convenio de Ginebra relativo a la protección debida a las personas civiles en tiempo de guerra ("Cuarto Convenio de Ginebra")*, 75 UNTS 287 (1949ko abuztuaren 12a). Haren arabera, potentzia okupatzaile batek lurralde okupatuko kartzeletan atxilotu behar ditu lurralde okupatuan bizi diren pertsonak.

64 Addameer: *Imprisonment of women and girls*, 2018ko azaroa. Online: https://bit.ly/2qsW1D0

65 K. Jarrar, 2019ko urriaren 14an egindako elkarrizketa. Haren lekukotzaren arabera, zigor hori gailendu da britainiarren mandatutik gaur egunera arte.

66 Bakarkako "erresilientziaren" kontzeptua María J. Lerak egindako Gazaren egoerari buruzko ikerketa luze baten azterketa psikologikoari dagokio, eta kausa haurrei bideratuta dago. Egoera traumatikoak bizitu izana (bonbardaketa jendetsuak, etxeen eraispena, senitarteko maiteen eta bizilagunen heriotza, eta abar) arazo emozionalekin eta antsietatearekin lotu ohi da, bereziki trauma osteko estresaren sintomekin. Behar bezala egiaztatutako abiapuntuko hipotesi bat batek frogatzen duenez, Gaza 2006tik bizitzen ari den setio militarraren eta bonbardaketen trauma-testuinguruak tentsioan dauden bi indarri erantzuten die, haurtzaroaren oinarrizko premia psikologikoak desartikulatzen dituztenak. Horren truke, eragindako gizarteak erresistentzia sendo bat garatu du hainbat mailatan, bizirik irauteko bitarteko gisa. María J. Lera, Ahmed Abu Tawahina: "Trauma, necesidades psicológicas básicas y resiliencia: Un estudio de caso", *Apuntes de psicología*, 25. bol., 3. zk. (2017) 187-193. 190. or. Guk are gehiago hedatu dugu terminoa, eta "komunitarioa" denaren nozioa gehitu dugu okupazioaren testuingurua ulertzeko, batik bat lurralde okupatuan. Testuinguru horretan, Israelen zatiketarako, kontrolerako eta ekintza kriminaletarako taktika guztiei uko egiteko prozesuak modu berean erasotzen dio gizarte palestinar osoari; herritarren oinarrizko premia psikologikoak hondatzen dira, eta beraz, gizarteak bere erresilientzia indartzen du maila komunitarioan. Kategoria hori iraunkortasun sozialaren adierazle gisa ulertu behar da, eta bertan ezinbesteko eginkizuna betetzen dute elementu jakin batzuek. Izan ere, gizarte palestinarra erresilientzia komunitariotik aztertzea bermatzen dute elementu horiek, are gehiago txosten honek jorratzen duen kasuan, hau da, emakume defendatzaileen kasuan. Honako hauek dira: memoria-mekanismoak, gertakari iskanbilatsuak eta aukera-leihoak. Kontzeptuan are gehiago sakontzeko, ikus: Fikred Berkes eta Helen Ross: "Community Resilience: Towards an integrated approach", *Society and natural resource*, 26. bol., 1. zk. (2013) 54-45.

III. UPWC: Palestinako emakumeen borroka eta erresistentzia. “Behetik” egindako hurbilketa

UPWC subjektu politiko gisa. Oinarrietatik ordezkarietara

UPWC 1980an jaio zen, bi urte lehenago eratutako Union of Women’s Action Committees elkartea zatitu ondoren. Feminismoaren inguruko ideologiarekin eta ikuskerarekin lotutako desberdintasunek eragin zuten zatiketa hori. Fundatzaileetako baten hitzetan, “emakumeek herrietan eta iheslarien esparruetan dituzten oinarrizko premien diagnostiko batean fokuratu behar genituen gure jarduera guztiak”[67]. Emakumeen jabekuntza komunitarioa ezinbestekoa izan da borroka feministan. Bi ekintza-fronte zehatz sortu ziren: indarkeria okupatzailearen agerlekua eta etxeko indarkeriaren pisua, Israelen okupazioak eragindako ezegonkortasun materialarekin lotutako baldintzak zirela eta[68].



Khitam Sa’afin, UPWC erakundeko Presidentea.

Emakumeen jabekuntza-programaren kasuan, Palestinako lurralde osoan jorratu behar ziren oinarriak, hainbat batzorderen bitartez. Batzuek eginkizun sozial erabakigarri batean kokatzen zuten emakumea (preso eta martirien senitartekoak txertatuz, adibidez), eta beste batzuek elkarteko emakumeen kontzientzia politikoa garatzea zuten xede, hezkuntza hori komunitate osora hedatzeko[69]. Nolanahi ere, emakumeen mobilizazioen eta horien kaleko presentzia aktiboan oinarritu zen ekintzaren nukleoa. Horren guztiaren ondorioz, UPWCk kohesio-lan sendoa egin zuen historikoki “behetik” egin ziren borroka guztiekin lotuta. Horrela, bada, giza eskubideen emakume defendatzaileen hezkuntza gauzatu zen erakunde komunitarioan, eta emakume horien lana ezinbestekoa izan da Palestinako herriak gaur arte bizitu dituen erresistentzia-gertakari historiko gehienetan[70]. Horien printzipioen abangoardian zegoen “askapen nazionalaren aldeko borroka, klaseen arteko borroka alde batera utzi gabe”[71].

Lehen Intifadak (1987) inflexio-puntua ezarri zuen antolakuntzaren terminoetan. 90eko hamarkadaren hasieran, haren izaera instituzionaletik hartu behar izan zen kolektiboa, misio bat eta taldearen ikuspegia zehazteko. Horrela, bada, estatutu estrukturala eratu zuten, erakundeari gorputz arauemailea emanez. Haren fundatzaileek oinarrizko erregelamendua egin zuten. Une horretatik aurrera, eskualdeko batzordeak sortu ziren lurralde osoan, baita idazkaritza, zuzendaritza-bulegoa, batzar orokorra, kongresu orokorra eta

67 UPWC: *Union of Palestinian Women’s Committes. Documenting our Experience* (Ramala, SUDS-NOVACT, 2017): 9.

68 Emakumeek Palestinaren testuinguruan bizi duten zapalkuntza bikoitzaren gaiarekin lotutako bibliografia oso zabala da, eta beraz, ezin da aipu bakar batean sartu. Emakume palestinarrek bizi duten etxeko indarkeriaren interpretaziozko nahiko hurbilketa sendoa irakur daiteke hemen: Lotta Schullerqvist: “We have open doors; Others have been closed: Women under the Oslo Accords”. Petter Bauck and Mohammed Omer (ed). *The Oslo Accords. A critical assessment* (New York, AUC press, 2016): 55-87.

69 UPWC: *Documenting our experience*..., 11.

70 Linda Tabar eta Omar Jabary, et al.: *Critical readings of development under colonialism: Towards a political economy for liberation in the Occupied Palestinian Territories* (Ramallah, Birzeit University’s Center for Development Studies, 2015). Liburu horretan, lehen intifadaren ondorengo antolamendu komunitarioari buruzko esperientzia ugari irakur daitezke, bereziki Osloko akordioen sinadurak eragin zuen inpaktu negatiboari dagokionez. Izan ere, Osloko akordioek izugarrizko eragina izan zuten jabekuntza komunitarioan, 1988an PAEko buruzagi erbesteratuek Palestinaren independentzia-adierazpena martxan jarri zutenetik.

71 UPWC: *Documenting our experience*..., 14.



UPWC erakundearen lantaldea Ramallahn.

eskualde-mailako zenbait kongresu ere[72]. Egitura instituzionalak eskualde guztiak hartzen zituen barne, erakunde bateratua balitz bezala. Horrenbestez, gorputz horrek organo zentralak bezala funtzionatzen zuen eskualdeetan, eta eskualdetako batzordeek eta kongresuek kongresu nagusian eta zuzendaritza-bulegoan parte har zezaketen.

Hasiera-hasieratik, UPWCk errotikako kritika proposatu zuen jabekuntza-ideiarekin lotuta, hura "emakumearen garapentzat" hartuta. Jabekuntzaren ikuspegi globala defendatzen zuen, kritikan jarri beharrekoa, terminoa erresistentzian eta antolakuntzan oinarrituta berregiteko[73]. Emakumeen jabekuntzak borrokarako erremintaren funtzioa hartu zuen okupazio kolonialaren eraginpean jarritako gizartearen esparruan, erakunde politikorik eta subiranotasun nazionalik gabea. *Subjektu politiko* gisa, erakundeak behin betiko aldaketa izan zuen erronkei dagokienez. Horrenbestez, UPWCren lana jazarpen globalarekiko eta okupazio sionistarekiko borrokaren eta erresistentziaren testuinguruan inskribatzen da, erresistentzia kolektiboari dagokion ikuspegi feminista batetik[74].

Elkarrizketatutako emakume askoren hitzak oso argiak izan ziren okupazio kolonialaren aurkako borroka feministaren eta borroka kolektiboaren arteko loturari dagokionez: "Kolonialismoari eta apartheid-sistemari aurre egitearen arazoa –Hego Afrikan bertan egindakoa baino askoz ere krudelagoa– emantzipazio-programaren erdigunean dago kokatuta, jarrera feminista guztiz borrokalariarekin elikatzen baita"[75].

Laburbilduz, Palestinaren askapena izan da elementu nagusia borrokatik eta erresistentziatik eratorritako kontzientzia politikoaren sorkuntzan indartu den subjektu politikoaren eraikuntzan, eta ez emakumeen eskubideak lortzeko borrokari dagokionez bakarrik, okupazio sionistak Palestinan gauzatzen duen

72 Ibidem, 12.

73 Emakumeen jabekuntzarekin lotutako ideiaren —agenda globalaren barnean— kritikari dagokionez, kontsultatu Eileen Kuttaben artikulua: "Empowerment as Resistance: Conceptualizing palestinian women's empowerment". *Development* (2010): 247-254.

74 Baieztapen horiek bat datoz elkarrizketatutako emakume askok esandakoarekin, K. S'Affin-en hitzekin, esaterako. 2019ko urriaren 10ean egindako elkarrizketa pertsonala.

75 UPWCko ordezkari Tahariren hitzak, Ramallah. 2019ko urriaren 11n egindako elkarrizketa pertsonala.

zapalkuntzaren kontrako borroka gisa baizik. Gaur egun 2.000 emakumek egiten dute lan Gaza eta Zisjordania osatzen dituzten eskualde guztien askapena lortu ahal izateko.

UPWC erakundearen jarduketa-eremuak giza eskubideen defentsari dagokionez

PRESENTZIA KOMUNITARIOAREN ALDEKO APUSTUA

Erakundearentzat komunitatearen barruan egiten den lan kolektiboa da jarduketa-eremu nagusia. Haren bitartez, okupazio kolonialak moldatu dituen egiturazko faktoreek mehatxatutako gizarte-ehuna birmoldatzea da helburua. Komunitatean duen presentzia hori prozesu historikoaren emaitza da; izan ere, lehen Intifada izan zen herri-antolakuntzaren funtsezko momentua. Orduan jaio ziren, besteak beste, babesik gabe geratzen ziren emakumeei elkartasuna emateko eta laguntzeko programa, Israelen erasoetan eta blokeoan haien senarrak atxilotzen edo hiltzen zituztenean[76].

Dena den, artikulazio komunitario horrek gainerako guztiarekin egin du topo, hau da, lurralde zatikatua eta modu koordinatuan jardun beharra irudikatzen duen guztiarekin, baita gizarte zibil palestinarraren despolitizazio- eta agortze-prozesuarekin ere, Osloko akordioak sinatu zirenetik.

Mugimendu etsigarri horien aurrean, UPWCk erresilientzia komunitarioko ekintza sendoekin erantzun du[77]. Horren adibide esanguratsuen artean dugu gazte-batzordearen lana. Gaur egun, batzorde horrek martirien familiei edo familiako buru diren etxebizitzarik gabeko ama-familiei laguntzeko programak konbinatzen ditu batetik, laguntza-funtsak biltzeko bazarren bitartez, eta emakume gazteen hezkuntza politikorako konferentziak eta aire zabaleko irakurketak antolatzen ditu bestetik; dena den, askotan, eginkizun hori eten behar izan dute, etxebizitzak eraisteko aginduak, gauez egindako sarekadak eta Israelgo armadaren erasoak direla eta. Baina horrek emakume gazteen eta erakunde osoaren ekintza politikoaren politizazio sendoa eragin du[78].

Eileen Kuttab UPWC erakundeko aktibista erretiratuak –Emakumearen Institutuko zuzendaria da gaur egun Birzeiteko Unibertsitatean– zorroztasun handiz deskribatu du aktibismoaren mugimendu pendular hori, giza eskubideak defendatzeko emakumeen mugimenduari atxikia. Haren oinarrian dago ekintza kolektiboa sendotzeko agenda mantentzeko garrantzia, betiere **presentzia komunitarioa** eta **komunitate politikoaren** sorkuntza abiapuntutzat hartuta, Israelek gauzatzen dituen indarkeriei aurre egin ahal izateko:

> *"Institutuak etengabe lan egiten du agenda estrategikoaren eraikuntza kolektiboaren gainean, emakumeen aktibismoak buruzagi emakumez osaturiko kultura politikoa sor dezan. Agenda hori garatzea da xedea eta, haren baitan, balantzan jarri behar dira askapen nazionalerako borroka eta generoarekin lotutako arazoak, mota horretako arazoak sortzen baitira giza eskubideen urraketen, jazarpenaren, atxiloketen, ziriken eta protesta-debekuaren aurkako defentsan"[79].*

IDENTITATEAREN, LURRALDEAREN ETA MEMORIAREN ALDE BORROKATZEKO ESTRATEGIAK

Aurreko ataletan ikusi dugun moduan, "banatzea" izan da estrategia sionista, Palestinako lurraldea zatitzea eta bertako herritarrak isolatzea, alegia. Era berean, garbiketa etnikorako plana gauzatu da eta, haren baitan, jatorrizko komunitatearen nolabaiteko atomizazioa egin da, hura sostengatzen duten identitate-loturak apurtzeko eta bere horretan jarraitzen duen herriaren memoria deuseztatzeko. Honako hau dio Taharir UPWC erakundeko (Ramallah) kideak: "Gure zaharrak hil eta gazteek noiz ahaztu itxaroten ari da Israel"[80].

Komunitatean duen presentzia abiapuntutzat hartuta, UPWCk proiektu sionistaren aurrean erabiltzen dituen borrokarako estrategiak funtsezko hiru elementutan pilotatzen dira: identitatearen, lurraldearen eta memoriaren aldeko borroka. UPWCren kontzientziazio komunitariorako eta emakume buruzagien prestakuntzarako programek identitatea bateratuta mantentzea dute helburu, kolektibo horrek eta, beraz, biztanleria osoak bizi duen lurralde-banaketaren sistema oso konplexua izan arren. Hori dela eta, identitate palestinarra bizirik mantentzea da hezkuntzan laguntzeko nahiz autonomia ekonomikorako programa gehienen xedea.

UPWCren jarduketan, Palestina aske uzteko proiektua hertsiki lotuta dago emakumeen emantzipazio-prozesuarekin, zama patriarkalaren aurka. Okupazioak barne hartzen duen gizarte-ehuna apurtzeko proiektuak identitate kolektiboarengan eragiten

76 UPWC: *Documenting our experience*..., 22.

77 Ikus 73. oharra.

78 Nassarek eta Nibeenek helarazi zizkiguten gazte-batzordearen inguruko deskribapenak. Emakume horiek arduratzen dira batzordearen koordinazioaz, Jerusalemen eta Ramallahn, hurrenez hurren. Nassari 2019ko urriaren 9an egindako elkarrizketa pertsonala eta Nibeeni 2019ko urriaren 9an egindako elkarrizketa pertsonala.

79 Eileen Kuttab, 2019ko urriaren 14an egindako elkarrizketa pertsonala.

80 Taharir. 2009ko urriaren 9an egindako elkarrizketa pertsonala. David Ben Gurion-i dagokio esaldia, eta ia lelo bat bihurtu da. Sionismoak berak maiz aldarrikatu du garbiketa etnikorako proiektuaren urte krudelenetatik, hau da, 1948tik 1967ra. Ramos Tolosa Jorge eta Diego Checa: *Comprender Palestina-Israel. Estudios Pluridisciplinares y Decoloniales* (Granada, Editorial UGR, 2019).

dituen ondorioek indarkeria bikoitza elikatzen dute emakumeen artean. Ondorio horiek arintzeko ezinbestekoa da ezin hautsizko lurralde-identitatea transmititzea.

Azkenik, UPWCk modu erabakigarrian egiten dio aurre *memorizidioaren*[81] aurkako borrokari, ekintza kolektiborako prozesuaren erreferentziazko oinarrigisa[82]. Horrela, bada, "memoriaren zaindari" jarduten dute, elkarrizketatutako emakume batek azpimarratu zuen moduan[83].

Erakundeak garatzen duen estrategia hirukoitz horren esparruan, ekintza espezifikoen adibide bat dugu Maha Nassar deituriko gazte-kanpamentua:

> *"Plan nazional orokor batean parte hartzeko deia egin zitzaien emakume guztiei. Zisjordaniako, Gazako eta Jerusalemeko gune guztietako emakumeak etorri ziren, herri-eremu handia sortzeko. Hark UPWC osatzen zuten gazte-batzorde guztiak hartu zituen barne, okupazioaren aurkako erresistentzia-estrategiei buruzko eztabaida zabal bat irekitzeko"*[84].

Kanpamentuan, emakume gazteek *workshopak* egiten dituzte, eta emakumeen eskubideei buruzko dokumentuak eztabaidatzen dituzte, nazioko eta nazioarteko erakundeek Palestinaren inguruko egoerari buruz egiten dituzten txosten, konbentzio, hitzarmen eta abarren irakurketa kritikoan oinarrituz[85]. Era berean, gazte parte-hartzaileek ordezko aukerak eraikitzen dituzte, eta "ekimen politikoak eta sozialak nola sortu erabakitzen dute, gizarte palestinar osoaren mobilizazioa bermatuko duten estrategiak martxan jarri ahal izateko, eta beraz, haien identitatea mantentzeko eta lurraldearen zatiketaren aurka sendo mantentzeko"[86].



Fátima Brijie. UPWC Belengo ama ekintzailea, Dheisheh errefuxiatuen kanpamenduan.

Bestalde, erresistentzia "memoriaren ibilgailu" bihurtu da. Kanal horretan, identitatea, memoria eta lurraldea borrokaren esparru berean barne hartuko dituzten ezinbesteko kontzientzia-elementuak txertatzen saiatzen dira emakumeak, Israelek isolamendu-proiektua izan arren. Zenbait ekintza kolektibo erabiltzen dituzte horretarako, hala nola sistema kolonial sionista, ilegal eta genozidaren aurkako etengabeko manifestazioak.

Gizarte zibil palestinarrak egin dituen manifestazioen adibide paradigmatikoen artean dugu Gazako herritarrek 2018ko martxoan abiarazi zuten Itzuleraren Martxa Handia, Palestinako errefuxiatu guztiek bertara itzultzeko eskubidearen aldekoa. Haren bitartez, Gazako Zerrendak bizi duen blokeo ekonomikoari berehala amaiera ematea eskatzen da, herritarrengan izan duen inpaktua dela eta.

Emakumeak –horietako asko UPWC erakundeko kideak– mobilizazio horien buru izan dira. Zaurgarritasun-egoera handian bizi badira ere, Gazako emakume palestinarrak ostiralero irteten dira martxara, zauri

81 Palestinan, lurralde-zatiketaren taktika sionistak badu ezkutuko xede bat, eskualdeetan sobera frogatuta geratu dena, eta ideia hori abiapuntutzat hartuta erabiltzen dugu memorizidioaren kontzeptua. Taktika horrek lurrak kentzea du helburu, isolamendu-eskema konplexu baten bitartez, gizarte palestinarraren identitatea apurtzeko eta, horrela, memoria guztiz ezabatu ahal izateko; izan ere, palestinarrek memoria horretan oinarrituz aktibatzen dute euren borroka. Terminoaren erabilera akademikoan gehiago sakontzeko, kontsultatu Dominick LaCapra: *Escribir la historia, escribir el trauma* (Buenos Aires, Nueva Visión, 2005).

82 Programa eta jarduera askok "memoriaren beharra" azpimarratzea iradokitzen dute, udako kanpamentuek adibidez, baita emakume buruzagien prestakuntza eta kontzientzia komunitariorako programa ere. Bibliografia oso zabala izan arren, memoriaren ikasketa sozialen esparruan, "memoriaren beharrari" dagokion gaia oso erabilgarria da UPWCko emakumeen agentzia soziala fokuratzeko orduan, eta zentzu horretan, Michael Pollak-en lanak azpimarra ditzakegu: *Memoria olvido silencio. La producción social de identidades frente a las situaciones límite* (La Plata, Al margen, 2005); Elizabeth Jelin: Los trabajos de la memoria (Buenos Aires, Siglo XXI, 2002).

83 Taharir. 2019ko urriaren 9an egindako elkarrizketa pertsonala.

84 Nibeen. 2019ko urriaren 9an egindako elkarrizketa pertsonala.

85 Workshop deiturikoetan.

86 Nibeen. 2019ko urriaren 9an egindako elkarrizketa pertsonala.

larriak jasateko edo hiltzeko arriskua izan arren. Inpaktua bikoitza da, horietako asko euren etxebizitzen buru baitira, eta euren seme-alaben zaintzaz arduratzen dira; azken horiek umezurtz bukatzen dute gehienetan, zuzenean nahiz zeharka jasaten duten indarkeria dela eta[87]. 2018ko martxotik azarora 1.800 emakume inguru zauritu zituzten, eta horietako asko euren familiak sostengatu ahal izateko ezgai geratu ziren.

UPWCren beste ekintza batzuk lege-esparruan garatzen dira. Zentzu horretan, lurralde-zatiketaren arazoa anexio-politikekin hertsiki lotuta dagoela azpimarratzen da, baina horiek guztiz ilegalak dira potentzia okupatzaile batentzat, betiere Genevako Laugarren Konbentzioko gerra-garaipen bidezko okupazioari buruzko artikuluei jarraikiz. Horrekin lotuta, UPWCk bere salaketekin esku hartzen du lege-esparruan eta auziak aurkezten ditu gorteetan, "emakumeen eskubideen aldeko epaiketak irabazteko aukerekin"[88]. Gainera, Justizia, emakume eta presoen ministerioetan parte hartzen dute. Horiek guztiak estrategikoak dira plano juridikoan sostengatzen den borrokarekin jarraitzeko, Palestinako Agintaritzaren sistema legegileak giza eskubideen aldeko legeak emateko botererik ez izan arren.

Erronkak eta mehatxuak giza eskubideen defentsan

Khitan Sa'afin UPWC erakundearen gaur egungo lehendakariak honako hau erantzun digu erakundeak giza eskubideen defentsarekin lotuta zein helburu dituen galdetzean:



Mariana Ismael Mousa, UPWC Belengo koordinatzailea.

> *"Giza eskubideak defendatzeaz gain, gizon-emakumeen berdintasunerako lan egitea da gure lehentasuna, herri-klaseak aberatsenen mesedetan zapaltzen dituen sistema honi kritika eginez. Eremu horretan dago, halaber, giza eskubideen defentsa"*[89].

Khitan Sa´afinek erakundeak aurrez aurre dituen hiru erronka mota aipatu dizkigu: okupazio militarra, sistema patriarkala eta 1993ko Osloko Akordioen ondoren Palestinan txertatu den eredu ekonomiko-sozial neoliberala. Bake liberalaren ereduak –horietan oinarritu ziren Osloko Akordioak– eraldaketa politiko eta sozio-ekonomikoaren prozesua eragin zuen, eta hark herri palestinarraren bizitzako alderdi guztiak zeharkatu zituen. Kanpotik, batik bat nazioarteko emaileen bitartez, merkatu libreko ekonomia sustatu zen, bizitzeko estilo eta modu berriak txertatuz, betiere diskurtso/narratiba indibidualistagoetan oinarrituz, 1987ko Intifadan eraiki zen "subjektu kolektiboaren" kaltetan.

Giza eskubideen defentsak emakumeen bizitza sozialaren dimentsio guztiak hartzen ditu barne kanpoko inbaditzaile batek etengabeko urraketa sistematikoen espektroa gauzatzen den lurralde batean; izan ere, haren proiektu kolonialak egunez egun areagotzen ditu lekualdaketak, usurpazioa eta Palestinako lurren eta baliabideen jabetzea. UPWC erakundeko kide guztiek zailtasun handiei egin behar diete aurre giza eskubideen defendatzaile gisa euren eginkizuna bete ahal izateko, horien kokalekua dena dela, hau da, komunitatea eraikitzeko oinarrietan –lan-kooperatiben bitartez– nahiz Batasunaren ordezkari lan egin. Adibideak kontaezinak dira[90]. Erakundeko kide diren emakume guztiek jasan

87 Ibidem.

88 2019ko urriaren 11n Halimari egindako elkarrizketa pertsonala.

89 K. S'Affin. 2019ko urriaren 10ean egindako elkarrizketa pertsonala.

90 Landa-lanean zehar UPWCko emakumeei egindako 25 elkarrizketetatik baino gehiagotatik 18tan errepresio-esperientzien lekukotzak eman dituzte, manifestazio desberdinen bitartez: protesta ez-bortitzetarako debekatuta dauden arma bidezko eraso zuzenak, nahiz epaiketarik gabeko administrazio-atxiloketak eta isilpeko sumario-atxiloketak.

91 Elkarrizketatutako pertsona batzuen anonimatua mantendu da, segurtasun-arrazoiak direla eta.



Halima Abu Solb, UPWC erakundeko abokatua eta aholkulari juridikoa.

dute Israelen errepresioa, modu askean adierazteko eta mugitzeko eskubidea urratuz, ausazko atxiloketen bitartez. Elkarrizketatutako emakume batek[91] honela laburbildu zituen bere bizipenak:

"Askotan atxilotu naute gaztea naizenetik... Damaskoko atean eta kontsulatu amerikarraren ate aurrean egin dut protesta okupazioaren eta Gazaren blokeoaren aurka. Horiek nire kausa guztiak bildu dituzte ni epaitzeko, baina aukeratzen utzi didate, nire senarra 16 urtez egon baita espetxeratuta. Aukera eman zidatenean, nire senarra preso zegoen. Kartzelara urtebetez joan edo zerbitzu zibileko "lana" onartu aukeratu behar izan nuen. Museo Militarra aukeratu zuten. Gazatik zetozen soldaduei arreta eskaini behar nien. Haien komunak garbitzea egokitu zitzaidan. Umiliagarria izan zen. Aktibista gisa, haien komunak garbitu eta mota guztietako irainak jasaten nituen militar sionisten aldetik. Gainera, nire lehen atxiloketetan torturak jasan nituen Shabaken. Tortura ikaragarri haietan, nire seme-alabak hilko zituztela mehatxu egin ninduten"[92].

UPWC erakundeko aktibista izateak eta giza eskubideen defendatzailea izateak nolabaiteko konpromisoa eragiten du, eta osotasun fisikoarekiko eta psikologikoarekiko, eta beraz, bizirik ez jarraitzeko mehatxua salbuespenik gabeko arrisku saihetsezina da.

Hala eta guztiz ere, errealitate horrek erresistentzia sendoa eraiki du UPWCko emakumeen artean. Nassar Jerusalemeko gazte-batzordeko koordinatzailearen hitzetan, "honelako gizarte heteropatriarkal batek sortzen dituen baldintzek are indartsuago egiten gaituzte. Emakume gisa, geure buruak jarri behar ditugu proban. Indartsuago egiten zara, zure komunitateak berak jarritako mugak indartu ahala"[93].

92 A.ri 2019ko urriaren 17an egindako elkarrizketa pertsonala.

93 Nassar. 2019ko urriaren 9an egindako elkarrizketa pertsonala.

IV. Palestinan giza eskubideak defendatzeko obligazioa duten titularrei egindako eskakizunak

Ikerketa honetan zehar deskribatu den moduan, sistematikoki eta inolako zigorrik gabe urratzen dira palestinarren funtsezko eskubideak. Giza eskubideen defendatzaileek, batez ere, egunero ikusten dute arriskuan euren osotasun fisikoa eta psikologikoa, zigorgabetasun horren aurka borroka egiteagatik bakarrik.

Israelen jarrera ofizialaren arabera, Zisjordania –Ekialdeko Jerusalem barne– eta Gaza ez daude legez okupatuta, eta gobernuaren ekintzek ez dituzte urratzen Genevako IV. Hitzarmenaren xedapenak. Bestalde, Nazioarteko Justizia Auzitegiaren[94] jurisprudentziarekin eta tratatu gisa sortutako beste organo batzuen (CERD, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Ituna, eta Giza Eskubideen Batzordea, adibidez) jarrerarekin bat etorriz, Israelek, potentzia okupatzailea den heinean, eta giza eskubideen zenbait trataturi atxikita dagoela kontuan hartuta, nahitaez bete behar ditu nazioarteko zuzenbideak ezarritako bere obligazioak haren jurisdikzio edo kontrol eraginkorraren pean dauden guztiei dagokienez, hau da, Israelek okupatzen dituen Palestinako lurraldeei dagokienez, Ekialdeko Jerusalem barne[95]. Laburbilduz, Israelek, potentzia okupatzaile gisa, Genevako Laugarren Hitzarmena bete behar du, baita hark berretsitako giza eskubideen nazioarteko itunetatik eratorritako obligazioak ere, honako hauek, hain zuzen ere:

- **Arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa (Israelek 1979ko urtarrilaren 3an berretsia).**
- **Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna** (Israelek 1991ko urriaren 3an berretsia).
- **Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Ituna** (Israelek 1991ko urriaren 3an berretsia).
- **Haurren eskubideei buruzko konbentzioa** (Israelek 1991ko urriaren 3an berretsia).
- **Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien au**rkako konbentzioa (Israelek 1991ko urriaren 3an berretsia).
- Ema**kumeen kontrako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko konbentzioa (**Israelek 1991ko urriaren 3an berretsia).

Beharbada CEDAW izango da nazioarteko tresna juridikorik garrantzitsuena genero-diskriminazio oroen aurkako borrokan. Israelek 1991n berretsi zuen CEDAW, baina ez du informaziorik eskaintzen Palestinako lurralde okupatuan genero-indarkeria aztertu ahal izateko, Israelen arabera, konbentzioa ez baita aplikagarria bere lurralde nazionaletik kanpo. Gainera, Israelek bi erreparorekin berretsi zuen haren aplikazioa: 7 (b) artikulua, parte-hartze politikorako berdintasunari buruzkoa; eta 16. artikulua, ezkontzarekin eta familia-harremanekin lotutako gai guztietan berdintasuna mantentzeari buruzkoa. Hain zuzen ere bi erreserba horiek dira Israelen jurisdikzio edo kontrol eraginkorraren pean dauden lurraldeetan giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeenganako diskriminaziozko tratuan gehien eragiten dutenak[96].

Bestalde, Israelek egiten dituen urraketak eta horietatik eratorritako erantzukizunak ez dira mugatzen nazioarteko zuzenbide humanitariora eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidera. Virginia Tilleyren arabera[97], esparru juridiko zabalagoa kontuan hartzea proposatzen da, honako tresna hauek barne hartuz:

- **Herrialde eta herri kolonialei independentzia emateko prozesuari buruzko adierazpena**, 1960koa.
- **Arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa**, 1965ekoa.
- **Apartheid krimena eragozteko eta zigortzeko nazioarteko konbentzioa**, 1973koa.
- **Nazioarteko Zigor Gorteko Erromako Estatutua**, 1998koa.

Esparru arauemaile horren baitan, nazioarteko eta gizarte zibileko hainbat erakundek egindako txosten eta dokumentu askotan salatzen da Israelek gizatasunaren aurkako krimenak egiten dituela, kolonialismoa eta apartheida, esaterako.

Palestinako Agintaritza Nazionalari dagokionez, lurralde okupatuko gobernu palestinarrak ere baditu betebehar batzuk, batik bat, 2014an, Palestina NBEren Estatu Behatzaile gisa aldarrikatu zutenetik. Halere, gobernu mota "bikario"

94 A/ES-10/273..., 114.

95 NBE Emakumeak: *International legal accountability mechanisms. Palestinian women living under occupation* (2016).

96 2014ko apirilean, Palestinako Agintaritza Nazionalak inolako erreserbarik gabe jo zuen Konbentziora. 2017ko maiatzean, CEDAW erakundeko Batzordeak Palestinari buruzko bere lehen txosten osoa argitaratu zuen.

97 CISCH: *¿Ocupación, Colonialismo, Apartheid? Reevaluación de las Prácticas de Israel en los Territorios Ocupados Palestinos bajo la Legislación Internacional* (Lurmutur Hiria: Giza Zientzietarako Hego Afrikako Ikerketa Kontseilua, 2009).



Elikadura burujabetza, kolonialismoa eta mugen inguruko Nazioarteko Kongresua, Ramallahn.

horrek –Osloko Akordioen harira eraikia– ez du politika, ekonomia eta lurralde arloko subiranotasunik, Israelek ezarritako sistema dela eta (arestian deskribatu dena). Horren adibide nabarmena dugu Palestinako Kontseilu Legegileko kideen espetxeratzea. Izan ere, horrek parlamentuaren funtzionamendu egokia oztopatzen du eta, aldi berean, emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzen eta genero-indarkeriaren aurka borrokatzen laguntzeko lege berriak onartu ahal izatea edo zaharrak indargabetzea galarazten du.

Egoera horren aurrean, **nazioarteko komunitateak** –batik bat Nazio Batuetako estatu kideek–, gobernuarteko erakundeek eta gobernuz kanpoko erakundeek, gizarte zibilak eta nazioarteko finantza-erakundeek behar bezala aitortu eta adierazi behar dute Israelen diskriminaziozko legeek, politikek eta praktikek apartheid, menderatze eta arrazaren zapalkuntza sistematikoan oinarritutako erregimena ezarri dutela eta mantentzen dutela herri palestinarraren aurka. Gainera, zatiketa eta errepresioa erabiltzen ditu, erregimen hori mantentzeko tresna nagusi gisa, horren aurka agertzen diren guztien kontra. Gainera, Israelgo Estatuaren betebeharrak eta hirugarren estatu batzuen erantzukizunak bete daitezela eskatu behar da egoera ilegal horri amaiera eman ahal izateko, betiere arestian aipatutako nazioarteko zuzenbidearekin bat etorriz, azken batean, herri palestinarraren autodeterminazio-eskubide besterenezina ahalbidetzeko.

Oso garrantzitsua da Estatuek banaka eta kolektibo gisa dituzten betebehar hauek azpimarratzea: "(a) apartheid-erregimena legezkotzat ez aitortzea; (b) Estatu bati apartheid-erregimena mantentzen ez laguntzea edo horretarako babesik ez ematea; eta (c) Nazio Batuekin eta beste estatu batzuekin elkarlanean jardutea, apartheid-erregimenak guztiz deuseztatzeko". Euren eskumenen barnean, apartheid-kasuak saihesteko eta zigortzeko legezko neurriak hartzen ez badira, krimen horren konplize bihurtuko lirateke[98].

Azkenik, nazioarteko komunitateak nahitaez babestu behar ditu emakume defendatzaile palestinarren eskubideak, eskubide horiek urratzen dituzten estatuko nahiz estatuz kanpoko agente guztien aurkako jarrera publikoa beregaratuz, haien aurkako eraso eta mehatxu guztiei amaiera emanez eta gertatzen diren guztiak ikertuz, eta zigorgabetasuna gailentzen ez dela bermatuz. Ingurune segurua bermatu behar zaie euren eskubideak gauzatu ditzaten, betiere horien premia zehatzak kontuan hartuta, eta jasaten duten diskriminazio sistemiko eta estrukturalari eta indarkeriari aurre eginez[99].

98 ESCWA: *Israeli Practices towards*... 64.

99 *A/HRC/40/60*, 108.

Bibliografia

Liburu eta artikulu zientifikoak

- Abdulla, Rimad: *Colonialism and Apartheid Against Fragmented Palestinians: Putting the Pieces Back Together.* State Crime Journal 5, 1. zk. (2016).
- Coconi, Luciana eta David Bondia: *Apartheid contra el pueblo Palestino.* Palestina Amb Cor, Bartzelona, 2009.
- Collins, John: *Más allá del "conflicto": Palestina y las estructuras profundas de la colonización global*, Política y Sociedad, 48, 1. zk. (2011).
- Escudero Alday, Rafael: *Segregados y Recluidos. Los Palestinos y las amenazas a su seguridad.* La Catarata. Madril, 2008.
- Hasan, Manar: *Palestine's Absent Cities: Gender, Memoricide and the Silencing of Urban Palestinian Memory*, Journal of Holy Land and Palestine Studies, 18, 1. zk. (2019).
- Hilal, Jamil: *Rethinking Palestine: settler-colonialism, neoliberalism and individualism in the West Bank and Gaza Strip*, Contemporary Arab Affairs, 8, 3. zk. (2015). http://dx.doi.org/10.1080/17550912.2015.1052226
- Jelin, Elizabeth: *Los trabajos de la memoria.* Siglo XXI, Buenos Aires, 2002.
- Gijón Mendigutia, Mar: *Historia del movimiento de mujeres en Palestina*. Nafarroa, Txalaparta, 2016.
- Kuttab, Eileen: *Empowerment as Resistance: Conceptualizing palestinian women's empowerment*. Development 53, 2. zk. (2010).
- LaCapra, Dominick: *Escribir la historia, escribir el trauma*. Buenos Aires: Nueva Visión, 2005.
- Masalha, Nur: *Settler-Colonialism, Memoricide and Indigenous Toponymic Memory: The Appropriation of Palestinian Place Names by the Israeli State,* Journal of Holy Land and Palestine Studies 14, 3. zk. (2015).
- Mera, Sánchez Ana: *Uso político de los tribunales militares israelíes en el territorio palestino ocupado: mecanismos de represión legal del gobierno de Israel contra movimientos de resistencia no-violenta en Palestina*, International Humanities Studies 2, 4. zk. (2015).
- Muhiar, Muñumer, Hanady: *El papel de la mujer en la construcción del Estado palestino* doktorego-tesia, Madrilgo Complutense Unibertsitatea, 2016.
- Muhiar, Muñumer, Hanady: *Aproximación histórica y evolución del movimiento de mujeres y feminista palestino*. *In* Genealogía feminista palestina: Historias de mujeres desde la diversidad. UNRWA Euskadi. Bilbo, 2016ko iraila.
- Muhiar, Muñumer, Hanady: *Aproximación histórica y evolución del movimiento de mujeres y feminista palestino*. Genealogía feminista palestina: Historias de mujeres desde la diversidad. UNRWA Euskadi. Bilbo, 2016ko iraila.
- Muhiar Muñumer Hanady: *La situación y la lucha de las mujeres palestinas*, Revista Pueblos, 52. zk. (2012).
- Pappé, Ilan: *La idea de Israel. Una historia de poder y conocimiento*. Madril: Akal, 2014.
- Pappé, Ilan: *Zionism as Colonialism: A Comparative View of Diluted Colonialism*, *in* Asia and Africa South Atlantic Quarterly 107, 4. zk. (2008)
- Pollak, Michael: *Memoria olvido silencio. La producción social de identidades frente a las situaciones límite.* La Plata: Al margen, 2005.
- Ramos Tolosa Jorge eta Diego Checa: *Comprender Palestina-Israel. Estudios Pluridisciplinares y Decoloniales* (Granada, Editorial UGR, 2019).
- Ricoeur, Paul: *Historia, memoria olvido*, Fondo de cultura económica, Mexiko, 2003.
- Schullerqvist, Lotta: *We have open doors; Others have been closed: Women under the Oslo Accords. In* The Oslo Accords. A critical assessment. Petter Bauck and Mohammed Omer, 55-67. New York: AUC press, 2016.
- Shalhoub-Kevorkian, Nadera eta Suhad Daher-Nashif: *Femicide and Colonization: Between the Politics of Exclusion and the Culture of Control*, Violence Against Women, 19, 3. zk. (2013).
- Tabar, Linda eta Chandni Desal: *Decolonization is a global project: From Palestine to the Americas*, Decolonization: Indigeneity, Education & Society 6, 1. zk. (2017).

- Tabar, Linda eta Omar Jabary, Toufic Haddad Nithya Nagarajan, Guy Burton: *Critical readings of development under colonialism: Towards a political economy for liberation in the Occupied Palestinian Territories.* Ramallah, Birzeit University's Center for Development Studies, 2016.
- Tilley, Virginia: *Beyond Occupation: Apartheid, Colonialism and International Law in the Occupied Palestinian Territories* (London, Pluto Press, 2012).
- Veracini, Lorenzo: *The other shift: Settler Colonialism, Israel, and the occupation*, Journal of Palestine Studies, XLII, 2. zk. (2013).
- Wolfe, Patrick: *Settler colonialism and the elimination of the native*, Journal of Genocide Research 8, 4. zk. (2016).

Gizarte zibileko erakundeen dokumentazioa

- Adalah: *Israel's Jewish Nation-State Law*, 2018ko abuztuaren 2a.
- Adalah: *The Basic Law: Israel –The Nation-State of the Jewish People*, 2018ko azaroa. https://bit.ly/37ff8Bt
- Al-Haq et al.: *Joint Parallel Report to the United Nations Committee onthe Elimination of Racial Discrimination on Israel's Seventeenth to Nineteenth Periodic Reports*, 2019ko azaroaren 10a. https://bit.ly/2CFnyEe
- Amnesty International: *Israel and the Occupied Territories Conflict, occupation and patriarchy. Women carry the burden* (2005). https://bit.ly/37mIVIq
- CAC et al.: *Palestinian Women Under Prolonged Israeli Occupation: The Gendered Impact of Occupation Violence, Women's International League for Peace and Freedom* (2017).
- CISCH: *¿Ocupación, Colonialismo, Apartheid? Reevaluación de las Prácticas de Israel en los Territorios Ocupados Palestinos bajo la Legislación Internacional.* Lurmutur Hiria: Giza Zientzietarako Hegoafrikako Ikerketa Kontseilua, 2009.
- MIFTAH et al.: *Palestinian women: The disproportionate impact of the Israeli occupation* (2018). Hemendik berreskuratua: https://bit.ly/2NpUkPN.
- NOVACT: *Human Rights Defenders in Israel and Palestine. A group in risk.* International Institute for Nonviolent Action (2016). https://bit.ly/347oa0U
- Paueko Kultura Eskola: *Mujeres, paz y seguridad. Aplicación, retos y límites en Palestina.* Pamela Urrutia Arestizabalek Paueko Kultura Eskolarentzat eta Associació Hèlia erakundearentzat egindako txostena (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, 2019).
- UPWC: *Union of Palestinian Women's Committes. Documenting our Experience* (Ramala, SUDS-NOVACT, 2017).
- WCLAC: *Submission to CEDAW Pre-sessional Working Group - (25-29 June 2016) Suggested List of Issues Prior to Reporting for Israel* (2016).
- WCLAC: *Voces de Mujeres. A la sombra de los asentamientos. Informe 2010 sobre las violaciones israelíes de los derechos humanos de las mujeres palestinas* (Madril, Grupo de ONG por Palestina, 2011). https://bit.ly/2XIb1t8
- Willemijn van Lelyveld eta Wafaa Al Kafarna: *Women's participation in the reconciliation process*, *in* This week in Palestine, 239. zk. (2018ko martxoa).

NBEren agiriak

- Batzar Nagusiaren 53. billkura, A/RES/53/144 (1999ko martxoaren 8a). Hemendik berreskuratua: https://bit.ly/2gdz6kt
- Batzar Nagusiaren 72. bilkura-aldia, A/72/556 (2017ko urriaren 23a). Hemendik berreskuratua: https://bit.ly/2ClSTeZ.
- Batzar Nagusiaren 73. bilkura-aldia, A/73/447 (2018ko urriaren 22a). Hemen: https://undocs.org/es/A/73/447
- Batzar Nagusiaren 181 (II) Ebazpena: *Plan de las Naciones Unidas para la partición de Palestina* A/RES/181 (1947ko azaroaren 29a). Hemen: https://undocs.org/es/A/RES/181(II)

- Batzar Nagusiaren 194 (III) Ebazpena: *Palestina-Informe sobre el progreso del Mediador de las Naciones Unidas*, A/RES/194 (1948ko abenduaren 11). Hemen: https://undocs.org/es/A/RES/194%20(III)
- Batzar Nagusiaren 2106 (XX) Ebazpena: *Convención Internacional sobre la Eliminación de todas las Formas de Discriminación Racial (ICERD)*, 1965eko abenduaren 21a. Hemen: https://bit.ly/2sH07bI
- Batzar Nagusiaren 2106 (XX) Ebazpena: *Convención Internacional sobre la Eliminación de todas las Formas de Discriminación Racial* (ICERD), 1965eko abenduaren 21a. Hemen: https://bit.ly/2DLfu5p ESCWA: *Israeli Practices towards the Palestinian. People and the Question of Apartheid Palestine and the Israeli Occupation*, Issue No. 1, E/ESCWA/ECRI/2017/1 (Beirut, NBE, 2017).
- Batzar Nagusiaren 3379 (XXX) Ebazpena, *Eliminación de todas las formas de discriminación racial*, A/RES/3379, 1975eko azaroaren 10a.
- Batzar Nagusiaren 34/180 Ebazpena: *Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer*, A/RES/34/180, 1979ko abenduaren 18a. Hemen: https://undocs.org/es/A/RES/34/180
- CEDAW: CEDAW/C/ISR/CO/6 (2017ko azaroaren 17s). Hemen: https://bit.ly/33oeJud
- CEDAW: CEDAW/C/PSE/1 (2017ko maiatzaren 24a). Hemen: https://undocs.org/es/CEDAW/C/PSE/1
- GEK: 25. bilkura-aldia, A/HRC/25/67 (2014ko urtarrilaren 13a). Hemen: https://bit.ly/2NoDcdl
- GEK: 34. bilkura-aldia, A/HRC/34/70 (2017ko apirilaren 13a). Hemen: https://bit.ly/34CBlaA
- GEK: 35. saioa, A/HRC/35/30/Add.2 (2017ko ekainaren 8a). Hemen: https://bit.ly/2W95Bqx
- GEK: 35. saioa, A/HRC/35/30/Add.1 (2017ko ekainaren 8a). Hemen: https://bit.ly/2WaRkJP
- GEK: 40. saioa, A/HRC/40/73 (2019ko martxoaren 15a). Hemen: https://bit.ly/2PmvphF
- GEK: 40. bilkura-aldia. A/HRC/40/60 (2019ko urtarrilaren 10a). Hemen: https://undocs.org/es/A/HRC/40/60
- GEK: A/HRC/37/75, 37. bilkura-aldia (2018ko ekainaren 14a). Hemen: https://undocs.org/A/HRC/37/75
- GHKNBB-PLo: *Occupied Palestinian Territory: Fragmented Lives. Humanitarian Overview 2016* (Jerusalem, GHKNBB-PLo, 2017).
- GHKNBB-PLo: *The impact on women of the Great March of Return*, 2019ko urtarrilaren 16a.
- KES: 62. bilkura-aldia. E/CN.4/2006/95/Add.3 2006ko martxoaren 18a). Hemen: https://undocs.org/es/E/CN.4/2006/95/Add.3
- Nazio Batuen Batzar Orokorraren 302 (IV) Ebazpena: *Asistencia a los refugiados de Palestina*, A/RES/302(IV), 1949ko abenduaren 8a. Hemen: https://unispal.un.org/UNISPAL.NSF/0/AF5F909791DE7FB0852560E500687282
- Nazioarteko Justizia Auzitegia: *Opinión Consultiva de la Corte Internacional de Justicia sobre las consecuencias jurídicas de la construcción de un muro en territorio palestino ocupado*, A/ES-10/273 (2004ko uztailaren 9a).
- NBGEGK: *Israel Must Ensure Protection For Issa Amro and Other Human Rights Defenders, say UN Special Rapporteurs – Press Release*, 2019ko apirilaren 10a. Hemendik berreskuratua https://bit.ly/32jhrQp
- NBE: *Convenio de Ginebra relativo a la protección debida a las personas civiles en tiempo de guerra ("Cuarto Convenio de Ginebra")*, 75 UNTS 287 (1949ko abuztuaren 12a).
- NBE Emakumeak: *Access denied. Palestinian Women's Access to Justice in the West Bank of the occupied Palestinian Territory: Where are women? Where is women's accessibility t o "justice"? Are there possibilities for justice in the context of military occupation?* (2014).
- NBE Emakumeak: *In the absence of justice Embodiment and the politics of militarized dismemberment in occupied East Jerusalem* (2016).
- NBE Emakumeak: *International legal accountability mechanisms. Palestinian women living under occupation* (2016).
- NBE Emakumeak: T*he National Action Plan for the Implementation of UNSCR 1325 "Women, Peace And Security". Palestine 2017 – 2019*. State of Palestine, MoWa, Ministry of Women Affairs. (2017).
- NBE Migrazioak: *World Report 2020*, Migrazioen Mundu Erakundea (ingelesezko siglak: IOM) (Geneva, NBE, 2019).
- Palestinako herriaren eskubide besterenezinak gauzatzeko Nazio Batuen batzordea: *Orígenes y evolución del problema palestino, 1917-1988* (New York, Nazio Batuen Erakundea, 1990).

- Segurtasun Kontseiluaren 1325 (2000) Ebazpena, S/RES/1325 (2000ko urriaren 31). Hemen: https://undocs.org/es/S/RES/1325%282000%29
- Segurtasun Kontseiluaren 2334 (2016) Ebazpena: *Situación de los asentamientos israelíes en los territorios palestinos ocupados desde 1967, incluyendo Jerusalén Este*, S/RES/2334 (2016), 2016ko abenduaren 23a. Hemen: https://bit.ly/2pPdEgh

Prentsa eta online baliabideak

- Adalah: *Israel's Jewish Nation-State Law*, 2018ko abuztuaren 2a. Hemen: https://www.adalah.org/en/content/view/9569
- Adalah: *Leyes disrdiscriminatorias israelíes*. Hemen: https://www.adalah.org/en/content/view/7771
- Addameer: *Administrative Detainees*, 2018ko abendua. Hemen: https://bit.ly/2rcLfRE
- Addameer: *Imprisonment of women and girls*, 2018ko azaroa. Hemen: https://bit.ly/2qsW1D0
- Addameer: *Israeli Occupation Continues to Violate the Rights of Palestinian Women*, 2018ko martxoa. Hemen: http://www.addameer.org/ar/node/3139
- Addameer: *Órdenes militares israelíes que conciernen al arresto, la detención y el enjuiciamiento de los palestinos*. Hemen: https://bit.ly/36OWJeG
- Amnesty International: *Israel y Territorios Palestinos Ocupados: En estado crítico un detenido palestino sometido a tortura legalmente autorizada*, 2019ko urriaren 30a. https://bit.ly/34 C9pnk
- B'tselem: *Torture and Abuse in Interrogation*, 2017ko azaroaren 11. Hemen: https://www.btselem.org/tortur
- Badil: *Resource Center for Palestinian Residency and Refugee Rights.* Hemen: https://badil.org/en/
- Hala Marshood: *Tali'at: Putting feminism at the center of Palestinian liberation*, Mada, 2019ko urriaren 26a. Hemen: https://bit.ly/2Wgzntz
- Human Rights Watch: *Israel expulsa al director de Human Rights Watch*, 2019ko azaroaren 25a. Hemen: https://bit.ly/2LmPVeV
- NBGEGK: *Los defensores de los derechos humanos de las mujeres*. Online: https://bit.ly/2pMtwjL
- NBGEGK: *Sobre los defensores de los derechos humanos*. Hemen: https://bit.ly/2JCmdTY
- PC Zoe: *Palestinian women to march against gender-based violence*, Peoples Dispatch, 2019ko irailaren 25a. Hemen: https://bit.ly/31P0Eo1

Beste batzuk

- ELGE: *Guidelines on the Protection of Human Rights Defenders* (Mindova, 2014). Hemen: www.osce.org/odihr
- Europako Batzordea: *European Union Guidelines on Human Rights Defenders* (Brusela, 2008). Hemen: https://bit.ly/2Qfcx4q
- Estatu Nazio Juduaren Legea. Israelgo Parlamentua (Knesset), 2018ko uztailaren 25a.
- International Labour Office: *The situation of workers of the occupied Arab territories*, ILC.107/DG/APP (Geneva, 2018). Hemen: https://bit.ly/2XJRqZz
- MoWA: *National Strategy to Combat Violence Against Women 2011 – 2019. Palestinian National Authority. Ministry of Women's Affairs* (Ramallah, 2011).
- MoWA: *Plan de Acción Nacional del Estado de Palestina 2017-2019 para la Implementación de la Resolución del Consejo de Seguridad de Naciones Unidas 1325 "Mujeres, Paz y Seguridad"* (Ramallah, MoWA, 2017).
- MoWA: *The National Action Plan for the Implementation of UNSCR 1325 "Women, Peace And Security". Palestine 2017 – 2019*. State of Palestine, MoWa, Ministry of Women Affairs (Ramallah, 2017).
- *The Jerusalem Metropolis Master Plan. A Futuristic Vision for Metropolitan Jerusalem. 5800 Jerusalem 2050.* Online: http://www.jerusalem5800.com/

Mundubat

pbi
abriendo espacios para la paz

Diruz laguntzen dute:

MADRID

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

www.vocesdefensoras.org